


Goienka2a

PILATES METODOA
BOLADAN DAGOEN
GIMNASIA MOTA



KIROLA: ARRASATE-OÑATI LASTERKETA JOKATUKO DA ZAPATUAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko maiatzaren 6a • V. urtea • 198. zenbakia • DOAN BANATZEKO

KULTURA

Trikitixa eguna
maiatzaren 14an
Arrasaten /15



JAVIER MARCOS / 'T.U. LANKIDE'

"Diseinua aldatu dugu,
aldizkaria erakargarriago eta
irakurterrazago egiteko" /9

DEBAGOIENA

Hiltegia ez ixtea eskatu
dute PSE-EEK, EBk, PPK
eta Aralarrek /5

BARRUAN, GEHIGARRI BEREZIA: AUTOMOBILEN GAINEKO 16 ORRIALDE

Algodonerako lan istripua salatu dute sindikatuek

ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek protesta egin zuten eguaztenean San Antonioko Algodonera, joan zen barikuko lan istripua salatuz. Beste hainbat lan istripu bezala, barikuan gertatutakoa ere saihestu zitekeela uste dute sindikatuetako ordezkariak. Sindikatuek eskatu die enpresei eta administrazioari neurriak hartzeko. /4



Eguaztenean egin zuten elkarretaraztea.

ASTEKO GAIA: TXAPELKETA ETXAK IKERKUNTZA

Epsilon Euskadi eta Debagoiena

Debagoienak parte-hartze handia du Epsilon Euskadi kirol eta teknologia proiektuan. Hain zuzen, Epsilonen helburua da automobil-lasterketetan nazioarteko tituluak irabaztea eta, bestetik, automobilgintza-industria sustatzea. Europa osoan proiektu berritzailea da, erreferente bihurtu nahi duena. Bada, hor diharduten ingeniariak Mondragon Unibertsitateak aurten

hasi duen master bat egiten dihardute. Bestetik, Epsilonek sortzen dituen automobil-teknologia berriak Euskadiko automobilgintza sektorea indartuko dute, tartean Debagoienekoa.

Epsilon albiste da egunotan kirol arloan. World Series automobil-lasterketa txapelketa lehenengo postuan sailkatuz hasi du, eta irabazten segitzea da bere helburua. /2-3

■ Epsilon Euskadi kirol eta ikerkuntza proiektua da

■ World Series automobil-lasterketa irabaziz hasi da kirol taldea

■ Epsilon taldeko ingeniariak MUko masterra egiten dute

■ MUko master hori punta-puntakoa da, eta bakarra Europa osoan



World Series kategorian, besteak beste, lehiatzen da Epsilon.

EPSILON EUSKADI

DEBAGOIENA

Miguel Lazpiur izan liteke Confebaskeko presidente berria

Miguel Lazpiur bergararra proposatu dute Gipuzkoako enpresariak, Confebaskeko buru izateko. Bergararra Adegiko presidenteordea da gaur egun. Bergarako Lazpiur SA enpresako ugazaba da Miguel, bere anaia Agustinekin batera. Makina-erreminta da Lazpiur SAREN jarduna. /4



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatu

Manuel Salaberria Mediku oftalmologoa

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Eskuz egindako altzarien
LIKIDAZIO OSOA!
existentziak amaitu arte



Orduetgia:
10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 20:00etara
(asteleheneetik zapatara)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

URRETXU-n
Azkoitirako errepidean

943 72 53 26

Debagoiena, 'pole position'

■ Epsilon Euskadi teknologia zentroarekin lan egiten du Mondragon Unibertsitateak

■ World Series by Renault auto-lasterketa garrantzitsuan lehiatzen da Epsilon



nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIKO Campusa
Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIKO Campusa
Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura.
 - Finantza Zuzendaritza.
 - Merkataritza Zuzendaritza.
 - Erakunde Kudeaketa.

BIDASOAKO Campusa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura.
 - Nazioarteko Merkataritza.
 - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAKO Campusa
Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumen eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
 - Hizkuntzen Psikopedagogia.
 - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
 - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
 - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa
943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

OÑATIKO Campusa
943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOAKO Campusa
943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAKO Campusa
943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

LEIRE KORTABARRIA

Fernando Alonsoz gain, izen handi gehiago dago auto-lasterketen munduan, eta Euskal Herria ere protagonista da. Izan ere, Epsilon Euskadi taldea lehenengo sailkatu zen World Series txapelketako taldekakoan. World Series txapelketa da auto-lasterketetako kategoria garrantzitsuena 1 Formularen ostean.

Baina Epsilon Euskadi ez da kirol talde soilia; bere asmoak ekonomia eta industria arloetara ere hedatzen dira, eta Europa osoan proiektu berritzaile bat da. Eta proiektu horrek zerikusi handia du Debagoienarekin.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Epsilon Euskadi autoen teknologiako goi-errendimenduko zentro bat da, eta Europako erreferente bihurtu nahi du. Bere helburuak honakoak dira: nazioarteko kirol txapelketak irabaztea, eta gainera, auto-lasterketetarako eta automobilgintza industriarako baliabide berriak sortzea; ingeniari espezializatuak trebatzea; automo-


bil-lehia industria garatzea, eta, denborarekin bai pilotuak, baita lasterketarako autoak sortzea ere. Bi alderdiko proiektua da, hortaz: kirola eta ikerkuntza.

Ikerkuntza alorra Debagoienak ipintzen du. Izan ere, Mondragon Unibertsitatearekin akordio bat du Epsilon Euskadi. Horren bitartez, Mondragon Unibertsitateak Europa osoan bakarra den master bat eskaintzen du: Automobil Lehiaren Espezializazio Teknikoaren Masterra (METCA). Europa osoko 19 ingeniari dihardute ikasturte honetan, eta dagoeneko Mondragon Unibertsitateak baditu eskarakerak datorren ikasturterako. Epsilonen egoitzan, Azkoitian, ikasten dute. Automobilgintzako punta-puntako diziplinetan trebatzen dira. Helburua da ikasleak heztea automobil lehiaketa diharduten talde baten zein automobilgintza-industrian lan egiteko.

Epsilon oso ona izan daiteke ibarrerako, Epsiloneko ordezkari Enrique Leonek dioskun bezala: "Euskadin ezarri ginen hemen dagoelako Estatuko automobilgintza-industriaren %80,

Ikuskizun handia Bilbon

Uztailan ikusiko dugu bukatuta, baina dagoeneko aldeko eta aurkako iritzia piztu ditu Bilboko zirkuituak. Egileen esanetan, "XXI. mendeko hiri-zirkuitu ikusgarrietako bat" da; aurkako herritarrek, ordea, salatzen dute zuhaitz asko bota dituztela eta zarata eta "autoaren edozein modutako erabilpena" besterik ez dituela bultzatzen. Kontuak kontu, lasterketa horrek milaka lagun erakarriko ditu Bilbora, eta denetariko kultura eta aisialdi ekitaldiak izango dira uztailearen 16 eta 17ko asteburuan.





EPSILON EUSKADI

Ezkerrean, METCAko ikasleak, eskola baten; eskuman, goian, World Series lasterketa bateko une bat; behean, Epsilon Euskadiren egoitza, Azkoitian.

Kategoria handi bat

World Series txapelketa Renault etxeak antolatzen du aurten. Nonahiko 1 Formularekin lehia zezakeen txapelketa bat sortzeko asmoz antolatu zuen lehenengoz Jaime Alguersuari 90eko hamarkada bukaeran, 1 Formulak maila handia baina baliabideak sortzeko gaitasun txikia zuelako ustean.

Auto-lasterketen mundu zabalean, World Series da 1 Formularen antzekoena. Helburua da maila handiko kirol ikuskizuna sortzea, eta baita 1 Formularen atari izatea ere. Izan ere, autoak oso antzekoak dira, eta 1 Formulako taldeendako erakusleho garrantzitsua da. Pilotuendako ere oso interesgarria da: Fernando Alonso edo Marc Gene pilotuendako, World Series txapelketa bana irabaztea erabakigarria izan zen.

Aurten, Epsilon Euskadik aukera du orain arteko bere marka hobetzeko: taldekako sailkapenean hirugarren izan ziren World Series txapelketan 2003an eta 2004an. Ander Vilariñok Montmelon irabazita lortu zuten titulu horietako bat.

Epsiloneko ingeniariak Mondragon Unibertsitateko masterra egiten dute

eta enprekin akordio estrategikoak nahi ditugu. Mondragon Taldeak autoendako denetarikoz piezak egiten ditu, eta gu izan gaitzke euren proba-bankua. Guk egiten dugunaren onurak hemengo industriari bueltan joango zaizkio”.

Azkoitian punta-puntako teknologiak lantzen direnez, emaitzak sektore askotan aplikatu daitezke, automobilgintzaz gain. Industriadako orotariko harrobi izan daitezke Epsilon.

World Series txapelketan irabazten hasi dira; datorren lasterketa Monacon dute, 22an

“IRABAZI NAHI DUGU”
METCA ezarri izana Epsilonen ibilbidearen bigarren urratsa da: hasierakoa, 2003koa, izan zen kirol taldeak kudeatzen hasia –aurten, World Series kategoriaz gain, beste bitan daude–, eta orain hurrengo helburua da euren lehiaketa-autoa diseinatzen hasia. Horretarako lekua egokitzen ari dira orain. “Gure ibilbidearen erdian gaudela esan daitezke. Zailena geratzen zaigu, lehiaketa-autoak egiteko ospea behar

Epsilon berritzailea da Europa osoan, auto-txapelketak eta ikerkuntza bateratzen dituelako

delako eta hori urteek ematen duelako”, dio Epsilonen.

Hala ere, bide ezin hobean daude, emaitzen arabera behintzat. Baikor daude. Pozik itzuli dira Azkoitiara Belgikako garai-penarekin, baina World Series txapelketa hasi besterik ez da egin; zortzi lasterketa geratzen zaizkie, baina Robert Kubica eta Felix Porteiro WSKo bi pilotuengan konfiantza handia dute: “Gure helburua zein den? Irabaztea. Aukera handiak ditugu

bi pilotu horiekin, izan ere, denboraldiaurrean onenak izan dira”, dio taldeak.

Emaitza on horien atzetik daude, hain zuzen, Epsilon osatzen duten 40 lagunak: ingeniariak, garraiolariak, mekanikoak, administrazioa... Guztiek dihardute Azkoitiako 4.000 m²-ko egoitzan. Euren buru, hiru lagun: Joan Villadelprat presidentea, 1 Formularen teknikari izandakoa 30 urtean; Michel Lecomte teknika eta hezkuntzako arduraduna, taldeen osaketan esperientzia handikoa; eta Carlos Mollá komertzial arduraduna, pilotu ohia.

Irakasle lanetan ere izen ezagunak daude Azkoitian: Marc Gene, John Barnard Ferrari eta McLareneko zuzendari izandakoa, Alan Jenkins kirolaria, Jean-Claude Migeot aerodinamista, Patrick Symonds Ferrariko zuzendari teknikoa, eta abar.

Lehiaketa egunak

- **Maiatzak 21-22:** Monaco (Monaco)
- **Ekainak 4-5:** Valentzia (Espainia)
- **Uztailak 9-10:** Le Mans (Frantzia)
- **Uztailak 16-17:** Bilbo (Euskal Herria)
- **Abuztuak 6-7:** Oschersleben (Ale.)
- **Irailak 10-11:** Donington (Err. Batua)
- **Urriak 1-2:** Estoril (Portugal)
- **Urriak 22-23:** Monza (Italia)

Mazda6. Kirol zaletasuna.

Bikar **M MENDIOLA**

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak

Etengabeko formazio eredu berria

AKADEMIA **BASTIDA**

Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es

- Kalitatea
- Ingurugiroa
- Laneko arriskuen prebentzioa
- Informatika
- Disenua
- Gestioa
- Hizkuntzak
- Giza baliabideak

Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak



ENEKO AZKARATE

Aurretik beharrezko neurriak hartuz gero, joan zen barikuko lan istripu larria saihestu zitekeela diote sindikatuek.

Algodonerako lan istripua dela-eta, lanuztea deitu dute sindikatuek

Enpresek eta erakunde publikoek erantzukizun garbiak dituztela diote

ENEKO AZKARATE

ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek protesta egin zuten eguaztenean San Antoniko Algonoderan, joan zen barikuko lan istripua salatzen. Beste hainbat lan istripu bezala, barikuan gertatutakoa saihestu zitekeela uste dute sindikatuetakordezkariek.

Sindikatuak eskatu diete enpresei eta administrazioari legea betearaztea eta neurriak hartzea horrelakoak berriro gerta ez daitezela, eta iragarri dute datorren astean ordubeteko lanuztea egiteko deia egin nahi dutela Bergarako enpresetan. Martitzenean, bestalde, beste elkarretaratze bat egin zuten toki berean CCOO eta UGT sindikatuek.

MAKINA IRAULI

Joan zen barikuan 25 urteko Andoni Zubiri goizuetarra hil zen, hondeatzeko makinarekin lanean ziharduela San Antoniko Algodonerako orubeetan. Makina irauli eta gainera etorri zitzaion, eta azpian harrapatuta hil zen langilea. Amenabar erakuntza enpresaren azpi enpresa batek kontratatuta ziharduen lanean. Lantegiko eraikin zaharrak botatzen hasiak ziren joan zen astelehenean, etxeak egiteko.

AZPIAN, GALERIAK

Lanean ziharduen tokiko zorua galeria batzuen gainean dago, hormigoizkoa da eta lodiera gutxi-koa zenbait puntutan. Pare horretan tona kopuru handiko hondeatzeko makina, 38 tonakoa, lanean hasi zenean gertatu zen ezbeharra: zorua behera egin

zuen pisua jasan ezinik eta hondeatzeko makina irauli egin zen.

"HILKETA IZAN DA"

ELA sindikatuko Luis Miguel Saenzek eguaztenean elkarretaratzean esan zuenez, "agerian geratu da hondeatzeko makina inoiz ez zela sartu behar orube horretan, baina tristea da heriotza bat gertatu behar izatea horre-

taz jabetzeko. Lehenago egin beharke lirateke karga-frogak". LAB sindikatuko Jon Garatek, ostera, zera zioen: "Hau ez da lan istripu bat edo heriotza bat izan; esan dezakegu, argi eta garbi, hil-keta bat izan dela. Enpresa batzuek eta baita administrazioak ere erantzukizun garbiak dituzte; izan ere, udalak eman behar ditu lanak egiteko baimenak".

Migel Lazpiur izan liteke euskal enpresarien burua

Confebaskeko presidente izateko proposatu du Adegik

E.A.

Migel Lazpiur bergararra proposatu dute Gipuzkoako enpresariak Confebaskeko buru izateko. Bergararra Adegiko presidenteordea da gaur egun.

Orain arte hiru presidente izan ditu Euskadiko enpresarien elkarteak, Confebaskek: Jose Maria Vizcaino gipuzkoarra, Baltasar Errazti bizkaitarra eta Roman Knörr, gaur egungoa, arabarra. Hurrengoa gipuzkoarra izan liteke eta, hori horrela, Gipuzkoako enpresarien elkarteak, Adegik, proposatu du Migel Lazpiur bergararra izatea Confebaskeko hurrengo presidentea. Gaur egun Adegiko presidenteordea da Migel Lazpiur.

Bergarako Lazpiur SA enpresako ugazaba da Migel, bere anaia Agustinekin batera. Aita-gandik jaso zuten enpresa orain dela 35 urte. Ehundik gora langile ditu. Makina-erreminta da Lazpiur SAREN jarduna. Orain dela hiru urtetik GKN multinazionalarekin elkar lanean dihardu, automobilaren sektorerako piezak egiten.

*Ekainean
edo uztailan
aukeratuko dute
Confebaskeko
presidentea*

Euskal Herriko unibertsitateak, elkarrekin hainbat proiektutan


Unibertsitateen arteko batzordearen lehendakaritza, MUK

E.A.

Mondragon Unibertsitateak hartuko du Euskadi-Akitania-Nafarroako Unibertsitate arteko batzordearen lehendakaritza hurrengo bi urteetarako. Batzorde horren zeregina da hiru lurralde horietako unibertsitateen arteko harremanak bultzatzea. 1994an sortu zuten erakundea eta bertan daude ordezkatuta Akitaniako bost unibertsitate, Euskal Autonomia

Erkidegoko hiru (EHU, MU eta Deustua) eta Nafarroako bi (Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea).

Erakunde honek bultzatu nahi ditu, besteak beste, titulazio bikoitzak, ikasleen mugikortasuna unibertsitateen artean, eta ikerkuntza eta berrikuntza egitasmoak elkarrekin egitea. MUKo errektoreorde Joxe Mari Lizeaga izango da erakunde honen presidentea datozen bi urteotan.



ULMA Manutención, Koop. Elk.
Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA
DE IA**

EGUNA: 2005eko maiatzaren 13a.
ORDUA: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
TOKIA: Oñatiko Santa Ana Antzokia

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAK ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2004KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2005EKO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2004KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. AUDITORETZA ERAKUNDEA IZENDATZEA
5. SOBERAKIN GARBIEN BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDOEN (HKSF) ERABILERA
7. EKONOMIA ARAUBIDEN ESTATUTU-XEDAPENAK
8. PIZGARRI KOLEKTIBOA
9. ORDAINKETA SISTEMA BERRIA
10. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
11. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
12. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2005eko maiatza

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketari buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da



**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**

Prezio onenak ditugu!

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

0000 km

**Mondeo
C-Max
Fiesta**

Hau da aukera!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Ez dute alderdi guztiek onartuko hiltegiaren privatizazio saiakera

Aralar, Ezker Batua-Berdeak, Alderdi Popularra eta PSOE-EE aurka azaldu dira

IRATI AGIRREAZALDEGI

Debagoieneko Mankomunitateak hiltegia privatizatzeko egin duen saiakeraren aurrean komunikatu bateratua kaleratu dute lau alderdik. Esan dute ez dutela proposamen hori onartuko; bai ordea Hiltegia Bizirik aurkeztutakoa babestu.

Aralarrek, Ezker Batua-Berdeak alderdiak, Alderdi Popularrak eta PSOE-EEK Hiltegia Bizirik plataformak Zubillagako Hiltegiaren gainean egindako proposamena babestu dute.

“Baserritar zein okelaren inguruko sektoreek, inoiz ez bezala, Hiltegia Bizirik plataforman batu eta Zubillagako hiltegia aurrera ateratzeko proposamena aurkeztu dute, zerbitzu publikoari eusteko euren inplikazio eta borondate osoa eskainiz. Gainera, ekonomikoki ere positiboak izango diren emaitzak lortzeko aurreikuspena egin dute”, esan dute lau alderdiotako ordezkariak.

Proposamen hau onartzeko zera hartu dute kontuan, besteak beste: “Errentagarritasun sozialaren aldeko apustua egiten dugu, errentagarritasun ekonomikoa bigarren maila batean utziz. Hala eta guztiz ere, Zubillagako hiltegiaren jardura ekonomikoki positiboa izan daitekeela uste dugu”.



Lau alderdietako ordezkariak gainontzeko alderdiei ere eskatu diete ez onartzeko privatizazioaren proposamena.

HILTEGI TXIKIEI EUTSI

Euren asmoa da baserrietako esplotazio txikien eta ertainen bideragarritasuna bermatzeko neurrien alde egitea, horretarako, “hurbileko hiltegi txikiak mantendu eta modernizatu behar dira. Ez dugu egoki ikusten okelaren ekoizpena hiltegi gutxi batzuetan kontzentratzea”.

“Hiltegiaren errentagarritasun sozialaren aldeko apustua egiten dugu”

Alderdiok erabaki dute udalbatzetan ez onartzea Debagoieneko Mankomunitatearen proposamena, hiltegiaren privatizazioa ekarriko duena. Gainera, eskatu diete gainontzeko alderdiei modu berean jokatzeko, “Zubillagako hiltegi publikoaren etorkizuna udalbatzetako erabakien menpe egongo delako”.

LABUR

ATECE elkarteak jai antolatu du dirua biltzeko

Kirol jaialdia antolatu du ATECEk (Garuneko Kaltea dutenen elkarte) datorren astebururako. Jai Arrasateko kiroldegian izango da eta elkarreendako dirua biltzea dute helburu. Maiatzaren 14an, goizez eta arratsalde, kirol erakustaldiak, eskolak eta aerobithoia egongo dira besteak beste. Domeka goizean Aukeraren sari banaketa eta gimnasia erritmiko erakustaldia izango dira. Jaialdira joaten direnen artean hainbat sari zozketatuko dituzte.

MCCren urteko balorazioa egingo du Jesus Cataniak

MCC taldeak urteko balorazioa egiteko prentsa agerraldia egingo du datorren eguean MCCko egoitza nagusian, Arrasaten. 2004. urteko ekitaldia nolako izan den, 2005-2008 Plan Estrategikoa-ren datu aipagarrienak, iazko urteko iraunkortasunari buruzko memoria, eta aurtengo ekitaldirako aurreikuspenak azalduko ditu MCCko buru Jesus Cataniak.

Bergarako autobus geltokian komunak ipiniko dituzte

Bergarako autobus geratokia komunak ipiniko dituzte. Bergarako Udalak onartu berri ditu Ibargaraiko autobus-geltokian berez garbituko den komuna jartzeko pleguak. Geltoki berria, lehengotik gertu, orain dela gutxi jarri dute martxan, hasiera batean itxoi-ten egoteko markesinekin. Orain, berriz, komunak ere ipiniko dituzte aurki.

Oñatin batuko dira Elizbarrutiko Elkartasun Taldeak

Zapatuan elkartuko dira Oñatin Gipuzkoako Elizbarrutiko Elkartasun Plataformakoak. 09:30ean hasi eta arratsaldera bitartean hainbat ekintza egingo dituzte. Goizean EHNEko Paul Nicholonek hitzaldia egingo du 10:30ean kultura etxean, eta 16:00etan Ekuadorreko talde batek kontzertua eskainiko du Erremerterri plazan. Tartean, guztiek elkarrekin bazkaltzeko aukera izango dute. Jardunaldion helburuetako bat da esperientziak elkartrukatzeko, betiere jai giroan.



LANA Koop. BATZAR NAGUSI ARRUNTERAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren estatututako 43. artikuluan agertzen den bezala, artekaritza kontseiluak batzar nagusi arrunterako deialdia egiten du, 2005ko maiatzaren 14an, goizeko 10:30etan lehen deialdian eta 11:00etan bigarren deialdian. KULTUR ETXEko bilera aretoa izango da, Santa Marina Plaza, z/g Oñati. Gai zerrenda ondorengoa izango da:

GAI ZERRENDA

- 1.- 2004ko Batzar Arruntaren eta Bereziaren agiria onartzea.
- 2.- 2004ko Memoria, Kontuak eta Balantzea aztertzea eta onartzea.
- 3.- Soberakin garbien banaketa.
- 4.- Lege eta Araudizko erabakiak.
- 5.- 2005ko Gestio Planak aztertzea eta onartzea.
- 6.- Barne araudiaren 82. artikulua aldaketa “Seme-alabak zaintzeko eszedentzia”
- 7.- Artekaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordearen berritzea.
- 8.- Beste batzuk, erreguak eta galderak.

Oñati, 2005ko apirilaren 13a

Lehendakaria



LKS INGENIARITZA, KOOP. E OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

EGUNA: 2005eko maiatzaren 20a.
ORDUA: Lehenengo deialdia 10:00etan eta bigarrena 10:30etan.
TOKIA: Gesalibar auzoko Aita Menni Ospitaleko Ekitaldi Aretoa (Arrasate).

EGUNeko AZTERGAIK

- 1.- 2004ko maiatzaren 14ko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onepenerari buruzko txostena.
- 2.- Aktaren onepenerako bazkideak izendatzea.
- 3.- 2004ko ekitaldiko memoria, emaitzen balantzea eta kontuak, eta gestio txostena aztertu eta onartzea. 2005-2008 Plan Estrategikoa.
- 4.- Soberakin garbia banatzea.
- 5.- Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
- 6.- Ekonomia Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
 - Ekarpinak
 - Kapitalari ordainketa
 - Kapitalari egindako ekarpenen eguneratzea
- 7.- Estatutu Sozialen aldaketak onartzeko proposamena.
- 8.- Barne Araudian aldaketak onartzeko proposamena.
- 9.- Aurre-erretiroetarako laguntzen Araudian aldaketak onartzeko proposamena.
- 10.- Kontseilu Errektorearen Estatutu-berriztatze partziala.
- 11.- Kontseilu Sozialaren Estatutu-berriztatze partziala.
- 12.- AIC (Ingeniaritza eta Aholkularitza Taldea) Koop. E.ari buruzko txostena.
- 13.- MCCri buruzko informazioa.
- 14.- Galderak eta eskaerak.

OHARRA: Bazkide guztiek jasoko dute OHIKO BATZAR NAGUSIAK hartu beharreko erabakien proposamena.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

Arrasaten, 2005eko apirilaren 19an.

AHT Gelditu Elkarlanaren batzar orokorra bihar Angiozarren

Ekintza plana finkatuko dute AHTren obrak hasiko dituztela iragarri dutelako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Batzar orokorra egingo da bihar, zapatua, Angiozarren, AHT Gelditu Elkarlanak deituta. Bertan elkartuko diren taldeek finkatu nahi dute ekintza plan bat AHTren aurkako borrokan garai berri bati ekiteko.

AHT Gelditu Elkarlanak dei egin die Abiadura Handiko Trenaren aurka dauden talde, erakunde eta norbanakoei, zapatuan Angiozarren egingo duten batzarrean parte hartzeko.

Batzarrean, gaiaren egoeraren gaineko balantzea egingo dute batetik; bestetik, proposamenak eztabaidatuko dituzte proiektua gelditzeko mobilizazio ziklo berri bati ekiteko.

Gai honetaz berba egiteko Angiozarren elkartuko dira 10:30ean. Bertara joateko ibilgailurik ez dutenak 10:00etan elkartuko dira Bergarako autobus geltokian. Jardunaldiaren eta bertaratutakoen aurkezpena egin ostean, egoera aztertuko dute eta aurrera begirako lan ildoak eztabaidatuko dituzte. Era berean, ekintza eta mobilizazio plan bat finkatuko dute.

“Proiektuaren eraikuntza lanak abian jarriko direla iragarri dute eta horren aurrean ekin-



AHT Gelditu Elkarlana ekimenekoek hainbat ekintza egin dituzte aurrez.

tza eta mobilizazio plana finkatu nahi dugu, ingurumeari nahiz gizarteari kalte larriak egingo dizkiotelako. Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan obrak egiteko lehia- ketak deitu ditu; eta Espainiako Sustapen Ministerioak Bilbo-Gasteiz ibilbidean eraikuntza proiektuak idazteko eta lurak desjabetzeko agindu du. Zati horretan,

*“Bilbo-Gasteiz
ibilbidean,
Kanpanzarren,
tunela egitea
aurreikusita dago”*

Kanpanzarren, tunela egitea aurreikusita dago”, esan dute AHT Gelditu Elkarlanekoek.

BAZKARIA ETA TALDE LANA

Goiza AHTren aurka egin daitzkeen ekimenen gainean bertan eman ostean, 13:00etan bazkaria egingo dute. Angiozarko elkarteak salda, pintxoak eta

sagardoa zerbitzatuko ditu; hala ere antolatzaileek esan dutenez, “komenigarria da norberak otordua osatzeko janaria eramatea”.

Ondoren, 15:00ak inguruan, taldeka elkartuko dira, ekimen batzuk abian ipini eta koordinatzeko, eta amaitzeko, gaiari buruzko ondorioak aterako dituzte. Asmoa da 18:00ak inguruan amaitzea batzarra.

Gaiak duen garrantzia dela eta, jendearen parte-hartzea beharrezkoa dela esan digute antolatzaileek. 60 bat lagun elkartuko direla aurreikusi dute: Aralar, Zutik, Batasuna, LAB, ESK, EHNE, Ekologistak Martxan edo gaztetxeetako ordezkariak, besteak beste, bertan izango dira. “Garrantzitsutzat jotzen dugu Angiozarko batzarrean ahalik eta jende gehienak parte hartzea. Izan ere, premiazkoa da borroka prestatzea, emango ditugun urratsak eztabaidatzea, proposamenak egitea eta dinamika berriak bultzatzea, AHTren aurkako oposizioak gora egin eta borroka areagotuko dela erakusteko”, esan dute AHT Gelditu Elkarlaneko kideek.

Antolatzaileek batzar honetan Angiozarko auzo batzordeari elkartasuna adierazi eta sostengua eman nahi diote, “auzoak zuzenean jasango lukeen muntro *desarrollista* hori gelditzeko”.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70



ANTZUOLA

Tokiko Agenda 21en gainean batzarra egingo dute martitzenean

Apirilean sinatu zuten Udaltalde 21 eratzeko hitzarmena. Debagoieneko udalek osatzen dute talde hori. Euren helburua da Tokiko Agenda Ekintza Plana diseinatzea eta garatzea. Horrekin, ekonomia-aren, gizarte ongizatearen eta ingurumenaren arteko oreka lortu nahi dute. Antzuolako Udalak herriaren gaineko diagnosis egiten dihardu eta prozesu hau herriko eragile sozial eta ekonomikoen artean hedatu nahi du. Horretarako, batzarra egingo dute martitzenean, hilak 10, 19:00etan, udaletxean. /A.I.

ARAMAIO

India eta Venezuela aztergai izango dituzte eskolan eta kultura etxean

Gobernuz kanpoko Harreman elkartearen eskutik, Indiako neskatilek bizi duten egoera latza zein Venezuelaren egoera ezagutuko dituzte San Martin Eskolakoekin datorren astean. Bideo-emanaldia, misiolari baten hitzaldia eta beste egingo dituzte datorren astean. Era berean, Erretiratuaren Egunean azokan ikasleek batu zuten dirua Indiara bidaliko dute, Harremanen bitartez.

Bestalde, maiatzaren 13an, hitzaldia izango da, 18:00etan, kultura etxean, pobretuta dauden herrialde aberatsen gainean. /U.M.

ELGETA

Elgetarako errepidea itxita 5,5 tonatik gorako kamioiendako

Uberako eta Izarreko bihurtuneak konpontzeko obrak direla eta, 5,5 tona baino gehiagoko kamioiek debekatuta dute bide zati horretan barrena ibiltzea. Ibilgailu astunendako debekua uztaillaren 15era artekoa izango da. Ordezko bide gisa proposatzen dituzte Kanpanzarrekoa eta Elorriokoa. Ibilgailu arinendako behin-behineko desbideratzeak egingo dituzte, baina astunak ezin dira bertatik igaro, errepidearen malda handia delako eta bihurtuneen erradioa txikia. /A.I.



JULEN IRIONDO

OÑATI

Zilarrezko Q-a jasotzea ospatu dute Txantxiku Ikastolan

Zilarrezko Q saria lortu dutelako ekitaldi ofiziala egin zuten atzo, eguena, Txantxiku Ikastolan. Han izan ziren Abel Ariznabarreta Hezkuntza sailburuordea, Juanjo Arrizabalaga Hezkuntza saileko lurralde ordezkaria, Jose Luis Lafuente Euskalit erakundeko presidenteordea eta Txantxiku Ikastolako presidentea eta zuzendaria, Mikel Iturrospe eta Andoni Zendoia, besteak beste. Ikastolen elkarteko ordezkariak eta udalekoak ere izan ziren gonbidatuen artean. Txantxiku Ikastolak joan den azaroan lortu zuen Zilarrezko Q saria, eta abenduan Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuaren eskutik jaso zuen Bilbon egindako ekitaldi batean. Atzo, berriz, Txantxiku Ikastolan bertan egin zuten sari hau lortu izanagatik zorionak emateko ekitaldi berezia. /OIHANA ELORTZA

ARRASATE

Bihar, Ikastolaren eta Kilometroaren aldeko jaiia ospatuko dute Arrasaten

Bihar, zapatua, Arizmendi Ikastolaren eguna da. Hala ospatu dute Arizmendi sortu zutenetik. Aurten, berriz, jai handiagoa eta bereziagoa egin nahi dute: "Kilometroak antolatzeke dugun egitura bera erabiliz erabaki genuen (...). Ekintzak zazpi gunetan banatu ditugu, eta guretzat urrian egingo dugunaren entsegu antzeko bat da". Hala azaldu zigun Kilometroaren antolakuntzan dabilen Leire Aranak.

HERRI-BAZKARIA ETA BESTE

Hala, Ferixalekuan 11:00etan hasiko dira jaiarekin: besteak beste, eskulan tailerra, Yumpinga, grafitia, teknologia erakusketa... izango dituzte, eta 12:00etan, tortilla lehiaketa.

Monterronen, 11:30ean, La Monda Lironda pailazoaren saioa izango da eta 12:00etan, arku-tiroa.

Herriko Plazan, berriz, 12:30ean Jokin Labaien, Enaitz Alustiza eta Ander Lizarralde bertsoariak

saioa egingo dute; 13:00etan, Argixoren urtebetetze jaiia ospatuko dute eta 13:30ean, euskal dantzak egingo dituzte.

Uarkapera salto eginez, 11:00etan artisauak izango dira eta 12:00etan, errelebo jokoak.

Eta San Viator Handin, areto-futbol txapelketa izango da, 11:30ean.

Herri-bazkaria ere izango da, 14:30ean; hura San Viator Txikin. Eta 18:00etan, antzerkia.

Bukatzeke, gaztetxean, 19:00etan ikasleek kontzertuak egingo dituzte: Scam, The Ruders, Piko y Pala eta Mala Hierba. /B. /U.M.

Zertzelada

Bestelakoaren artean, dendak izango dira: Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, bigarren eskuko azoka... eta gastronomia elkartek txosnak ipiniko dituzte

BERGARA

Aroztegi erakusketa aretoa inauguratuko dute datorren eguenean

Aroztegi aretoaren inaugurazioa egingo dute eguenean, Pazkoen atarian, 19:00etan. Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa antologikoa zabalduko dute egun horretan. Erakusketa ekainaren 12ra arte izango da ikusgai.

Mertxe Lasak, Juaristiren alargunak aurreratu digunez, "gure bildumako

Abdonen koadroez aparte, han eta hemen banatutako hainbat lan jaso ditugu. Nagusiki 1970etik hona margotutako koadroak dira, estilo eta formatu ezberdinetakoak".

Aurrerantzean erakusketak, hitzaldiak eta formatu txikiko kontzertuak egiteko erabiliko da Aroztegi aretoa. /E.M.



E.M.

Abdon Juaristiren erakusketa batekin zabalduko dute aretoa.

ARETXABALETAKO

Sabadellera joango da Aretxabaletako Akordeoi Orkestra gaur arratsaldean

Aretxabaletako Akordeoi Orkestra Bartzelonan dagoen Sabadell herrira joango da gaur, egubakoitza. Bi kontzertu emango ditu bertan, Sabadellgo Musika Kontserbatorioan bata, eta handik oso gertu dagoen Barbera del Valles herrian bestea. Ekitaldiok azaroan gure artean egon zen Sabadellgo Akordeoi Orkestrak antolatu ditu. Orkestrako kide eta gurasoen artean 30en bat laguneko taldea joango da Aretxabaletatik, eta aste bukaera Bartzelona ingurua ezagutzeko aprobetxatuko dute. /M.A.

ESKORIATZA

Udalak erretiratuendako jarritako ortuek urtebete egin dute

Iaz Udalak Torrebasoko mendixkan (Almenen alboan) erretiratuendako ortuak jarri zituen. Haien alboan, txabola jarri zuen, eta barruan, aldatzeko eta gauzak gordetzeko armairuak. Ur putzua ere badute, eta laster mahaiaik eta markesina jarriko dizkiete. Erretiratu guztiek berri-itu dute ortuak erabiltzeko hitzarmena.

HIRU ORTU LIBRE DAUDE

Udalak aditzera eman du hiru ortu libre daudela. Interesatuak udaletxera jo beharko dute, eta ez dute ezer ordaindu behar. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Arlaban gaina erregulatzeke plana onartu zuten osoko bilkuran

Joan den astean egin zuten Leintz Gatzagako Udalean osoko bilkura, eta orduan onartu zuten Arlaban gaina erregulatzeke plana. Aspaldiko eskaera zen hori, eta onartuta dagoenez, alegazioak aurkezteko epea irekiko dute orain. Gainera, Arlaban gaineko lur eremu bat nekazaritza industriadako aurreikusitako dute.

AGENDA 21 FOROA

Datorren eguaztenean, hilak 11, egingo dute Gatzagan Agenda 21 egitasmoaren gainean eztabaidatzeko foroa, 18:30ean. /X.U.

Gutunak

Gure kaleetako
zuhaitzak eta gu

Joan Mari Irigoien esanetan: *Zuhaitzaren ametsetan kulunka, haritz nahiz pago, lur bat haratago*. Haratago dauden lurretako zuhaitzak ez, hemengoekin ere nahiko ardura izan dezakegu. Zoritxarrez herri askotan eta gure honetan ere bai...

Askoren iritziz, eta gain gainetik begiratuta, oso ondo dago gure herri hau. Noiz hainbeste zuhaitz gure kale, parke eta ibilbideetan? Noiz halako dirutza lan horietan? Beharbada horrelako galderak datoz, batez ere arduradunen iritziz. Gure ustean lan gehiegi alferrikakoak, bai kalterakoak ere; Herriko plazako zuhaitzek esaterako, oraindik ez dute batere itzalik. Aldi berean *golpez edo batez ez*. Golpez (edo gehiegi) egiten diren inausketak haize zakarren ondoren edo etxeetako leihoetan adarrak sartzen hasi eta gero egiten direnak. Batere ez, pisu desoreka handiz edo luzera izugarri arriskutsuan dauden zuhaitzak urteetan inausi barik daudenak, zeharo lehortutakoak kendu edo ordezkatu beharrean. Badaude adar ihar edo lehorrak kentzeke dituzten zuhaitzak inausi ondoren ere. Durana kaleko haritzak, hain zuzen. Izan ere, nola konturatu zein den bizirik dagoen adarra edo zuhaitza, udan hosto garaian izan ezik?! Profesionaltasun apur bat nahikoa da hortaz konturatzeke, baina arduradunak dena bulegotik zuzendu nahian dabilta.

Titulu berezirik ez, baina aspaldi gure baserrietan ikasitakoarekin eskari zehatzak eta ugari egin ditzakegu. Gurearekin ados ez dagoenak ere idatzi dezala edo areago joango denik izango balitz hobe.

Aretxabaletan, Durana kalean, haritzak landatzea oso asmo ontzat hartu zen orain urte batzuk, baina ondorengoak inausketa guztietarako beldurrez edo ibili dira... Orain *adarjotze* beldurgarri bat; zuhaitzei eta guri ere bai. Baserrian butanoa baino lehenagokoak garenok sutarako eta beste, egurra lortzeko bide ziren haritz motza eta pago potoloak, baina beste irudi edo tankera bateko inausketa eginda zuhaitzei. *Kopa* edo adar buru zabalaz inausen ziren gainetik argi gehiago zutela, eta ez *bola* gogoz egin diren lanak. Ligustrum edo beste zuhaixka askok duten itxura eman guran likidanbarrekin ere gehiegizkoak egin dira. Pagok gutxi ditugu baina ez daukate itxura onik. Platano arruntak, berriz, urteroko inausketa barik, asko utzi behar lirateke. Hauetako asko (50) dozena erdi urtean behin inausita nahiko.

Zuhaitzak inausketa beharrezko du, bakoitzak bere neurrian, baina ez hainbeste edo batere ez.

ANJEL LOIDI ETA BESTE BATZUK
Aretxabaleta

Aramaioko hilerrien
egoera penagarria

Aldetz aurretik esan beharra daukat Aados nagoela Asteleheneko Goienkaria-n Iritziak atalean "Apurto eta gero konpondu behar" esaten duen idatziarekin. Nik, Aramaioko herritar naizen aldetik, beste kexu bat adierazi nahi nuke.

Igandean (amaren egunean) Aramaioko hilerria buelta bat egitera joan nintzen. Bertako atea zeharkatu eta segidan ezusteko handia hartu nuen hilerriaren egoera penagarria ikusi nuen! Lore sorta zaharrak zeuden sakabanaturik alde guztietan, eta lurrian 20 zentimetro inguruko belarra! (gutxienez 5 edo 6 hilabetez moztu gabekoa).

Nire iritziz, hilerrian atsedean hartzen daudenek nahiko zerga ordaindu dituzte beraien bizitzan, eta orain, hori merezi dute? nork du egoera horren ardura (eta errua)?

ANE ESKAIO
Aramaioko

Utzi bakean Udalatx

Udalatx zultzea paregabeko astakeria da. Proiektuaren arabera, 350.000 metro koadroko hiru galeria ireki nahi dira (1.050.000 metro koadro, guztira): 165 futbol zelairaren eremuaren parekoa.

Udalatxten zulaketaren inguruan dauden interesak ekonomikoak dira. Guztiz lotsagarria da denon onura den mendi honen kontura enpresaburuek beren poltsikoak betetzeko azaltzen duten asmoa, oso tentagarria baita eurentzat horrelako kareharrizko mendi eder bat begi bistan edukitzea. Kanpazarreko harrobiko ugazabak harrobia ustiatzeko mugatuta zeuden (ezin baitzuten altura batetik gorako harria atera) eta Udalatxi begiratu diote. Euren asmoa, galeria metodoaren bidez kareharria ateratzen hastea da; horretarako alderdi politikoko batzuen laguntza behar zuten.

Hala ere, gure agintariek ez gaituzte asmo horietaz informatu; jakin dugunerako 60 metroko zuloa egin zegoen. Badirudi, gainera, obra honek ez dela behar duen baimenik; izan ere, udal arautegiaren arabera (150 artikulua), lur azpiko instalazio guztiek (lur-mugimenduak, zulaketak, indusketak...) baimen hori behar dute. Ez dezatela lanpostu berrien aitzakia argudiotzat erabili, ez digu arrazoi eta justifikazio bezala balio eta; ondo baitakigu asmo hauen atzean zer dagoen: azpijokoa, zurikeria eta aberaste pertsonala. Garrantzizkoena lanpostuak balira, zen-

tral nuklearren alde egongo ginateteke, autopisten, armagintzaren, AHTren eta abarren alde, alegia.

Baina ez da horrela! Uste dugu astakeria gehienak, gertatzen diren hondamendi ekologiko larrienak, gutxi batzuen interes ekonomikoak eragindakoak izaten direla, eta arduradunak eskrupulu gabeko ugazaba eta politikari lotsagabeak, zeintzuei bost axola zaien ingurumena euren patrikak ondo beteta badaude. Gure lehentasunak beste-lakoak dira: naturarekiko begirunea, datozen belaunaldiei mundu hobea utzi nahi diegulako. Horregatik, proiektuaren bidegabekeria salatu eta aurrez aurre aurkituko gaituztela adierazi nahi dugu. Eta, bukatzeko, honako hau gogorarazi nahi genizueke:

1. Orain dela urte gutxi Eusko Juarlaritzak Udalatxeko ingurua ekologikoki oso onuragarria zela esan zuen.

2. Lurralde Antolamendurako Artezipideek Udalatxeko ingurumena, paisaia, fauna eta landaretza balio handikotzat katalogatu zituzten.

3. Deba Garaiko Lurralde Antolamendurako Artezipideek Udalatx "babestu beharreko gun natural" izendatu zuten.

4. Arrasateko Hiri Antolamendurako Egitasmo Orokorrak Udalatxeko paisaia eta ekologia oso interesgarritzat jotzen, eta, gainera, gun hori babestu beharrekoa dela esan du.

JOSE LUIS ENCINAS
Arrasate

Udalaitz?

Juen dan zapatuen, apirilek 30, Gautxoriren aldeko bilkuraren ondoren, zerbait hartzera Mondragoeko taberna batera sartu ginen. Bertan, herriko koadrila jator bat, hogeita bost urtez jarraitzen Udala auzotik gora dauen mendixe urtero-urtero igo dauiera zelebretan. Euren kamisetan hau agerketan zan: "Udalaitz 25".

Hori ikusitze, euren ekimena txalotu nauen, baiñe koadrilako bati esan nutsen akats txikitxo bat ikusten nauela, eta ia hobeto etzan izengo "Udalaitz 25" ipinttie. Bere erantzune hauxe izen zan: "Arrasaten betidanik Udalaitz esan izen dok".

Oker ez banabil, Gautxorik Atxondoko jatorrixeko dauko, eta ez Aitzondokue. Enuzketako Juan Mariri Santa-atxera jueten jako ahuntzek, eta ez Santa-atxera. Eta Udalako Artetako Joxe Mari Udalatxera jueten da susetan, eta ez Udalaitzera.

Txipi, hire autoridadiekin, argitxui hau asuntua, afaixe jak jokuen eta.

TXERREN ORMAETXEA
Arrasate

Hemeroteka

Oreja de Van Gogh

Maria San Gil... (...). Mariak beti aldarrikatzen duelako bera edonoren pareko daukagula "euskalduntasun mailan"... Bai, Maria: nire aldetik, arrazoa zuretzat... Zurekin batera gitariko inor bere elkarrizketa saiora gonbidatuko balu Julia Oterok, adibidez (zurekin batera gerezi pareta osatzeko), nola azaldu Juliari —nola azaldu Espainiari— "zu baino euskaldunago dela gitariko edonor", haien aurrean gaizki eman gabe... Euskalduntasuna "eman eta kendu" egiten dugula abertzaleok inork pentsatu gabe? Arrazoa zuretzat, Maria: ni bezain euskaldun zaitut... Baina horrek sortzen dit, hain zuzen ere, "benetako arazoa"... Euskal Herrikan kanpora ateratzen zaren bakoitzean. Zela-ko auzo-lotsa, Kristo maitea, Julia Oteroren saioan zure adierazpenak entzunda herenegun! Ongi ulertu, Maria: zure hitzei erreparatuta auzo-lotsa sentitzen dut, hain zuzen ere, "euskaldun" zaitudan neurrian. Pertsona arrotza bazina, ordea, urruneko norbaitek eragindako lotsaz arituko ginateke hemen. Kulturen artean izan ohi den amildegi sinbolikoa dela kausa, eta abar. Baina bai, Maria, zoritxarrez ez zaude oker. Euskal Herrikan kanpo ateratzen zaren bakoitzean "gitariko bat zara". Horregatik, a ze lotsaldiak pasaratzen dizkizadun niri behintzat, "Bin Ladenekin inork ez luke hitz egingo" bezalako esaldi *jenialoideak* botatzen dituzunean... Aldamean egokitu zitzaizun Artur Mas koitadua ere bere *seny* erreserbak agortzera behartu zenuen. Esan bezala, orduan zaitut nik gertuko (zoritxarrez). Lau haitzeetara eta konbentzimendu osoz zure pernandokeriak botatzen dituzunean. Nire eta gure herriaz zure ikuspegi okerrak Espainiari eskaintzen dizkiozunean ez zaitut maltzur ikusten. Ulertzen ote duzu? Arerio sentitzen zaitut, baina ez nau batera pozten zu "hain oker" egoteak. Euskaldun zaitudan seinale ala ez?

FERMIN ETXEGOIEN
'Berria'. 2005-05-05

OJD erakundearen gutuna

Zuetako batzuk jasoko zenuten gutun bat GOIENKARIAren eta prentsa idatziko hedabideen tirada eta difusioa neuritzen dituen Madrilako OJD erakundearen izenean. Gutun horretan, eskatzen zitzaizuen adierazteko egubakoitzetako GOIENKARIA jasotzen duzuen edo ez. Gutuna, baina, gaztelaniaz jaso duzue, gure borondatearen kontra.

Gutuna OJD erakundeak bidali dizue, nahiz eta gure izenean ere sinatuta. Hurrengoetarako euskaraz bidaltzeko eskatu diegu eta espero dugu horrela jasotzea.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar,
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Apirilean 500. zenbakia kalera-
ratu du *T.U. Lankide* aldiz-
kariak. Duela 45 urte sortu
zuen Jose Maria Arizmendiarririk,
eta orduko helburua eta maiztasuna
ditu gaur egun. Hilero 11.500 ale bana-
tzen dituzte MCCko enpresetan.

OIHANA ELORTZA

Enpresa gutxi aterako dute horren- beste urte dituen aldizkaria, ezta?

Ez dira asko izango. Batetik, horrela-
ko aldizkari bat ateratzeko, enpresaren
tamainak ere badu garrantzia; enpresa txi-
kietan ez dute ateratzen, adibidez, inber-
tsio handia egin behar da eta. Dena dela,
enpresa handietan ere toki gutxitan izan-
go dute hain aldizkari zaharra. Multina-
zionalek, adibidez, badute, baina norma-
lean aurrekontu jakin bat dute horreta-
rako eta doan banatzen dute. Guk, aldiz,
geuk kudeatzen dugu aurrekontua eta
geuk eramaten ditugu sarreraren eta kos-
tuen kontuak.

Nola sortu zuten eta zein helburu- rekin?

On Jose Maria Arizmendiarririk sor-
tu zuen, *Cooperación* izenarekin. Gaine-
ra, apirilean bete dira 90 urte hura jaio
zela. Hasieran argitalpen apala zen, mul-
tikopistarekin ateratzen zuten eta heda-
pena urria zen.

1960. urtean atera zuen lehen zenba-
kia. Ordurako Ulgor, Arrasate eta beste
kooperatiba batzuk lanean zebiltzan eta
Euskadiko Kutxa sortzeaz zegoen. Berak
argi ikusi zuen ezinbestekoa zela koope-
ratiba hauen arteko komunikazio esparru
bat sortzea. Helburua zen printzipio koo-
peratiboak eta haien inguruko filosofia-
ren zabalkundea egitea.

Ze bilakaera izan du *T.U. Lanki- de*-k 45 urte hauetan?

Hasieran enpresetan banatzen zuten
berripaper bat zen eta poliki-poliki aldiz-
kari bihurtu da. Kooperatibak sortu aha-
la, hedapena ere handitzen joan da, eta
horrek bilakaera ekarri du, bilakaera
naturala, nire ustez.


Eta nola aurkeztu duzue 500. alea?

Diseinu aldetik, aldaketak egin ditu-
gu: modernoagoa, zuri gune gehiagorekin,
erakargarriagoa egin dugu. Horrez gain,
titulu, azpitiutulu eta entresaka gehiago sar-
tu ditugu. Horrela, artikulu osoa irakurri
nahi ez duenak ere gai horri buruzko
laburpena, behintzat, jasoko du.

Bestetik, organo sozialetan diharduen
norbaitek elkarrizketatuko dugu hilero.
Errektore kontseiluaren eta kontseilu
sozialaren lana zein den, kooperatiba zein
egoeratan dagoen eta bere lehentasunak
zeintzuk diren jakinaraziko diegu ira-
kurleei, besteak beste. Eduki aldetik ere
egin ditugu aldaketak.

Zein eduki ditu orain?

Hiru atal nagusi ditu. Lehenengoan
kooperatibetako berriak datoz eta koo-
peratibetan sortzen diren albisteak kon-
tatzen ditugu atal horretan. Bigarren
atalean azaleko gaia jorratzen dugu eta
ukitu kooperatiboko balore eta printzi-
pioak dituzten albisteak datoz. Hortik
aurrera, gai arinagoak sartzen ditugu.
Besteak ez dira konplexuak, baina bai,
akaso, teknikoagoak. Beraz, hirugarren
zati honetan elkarrizketak, osasunaren
inguruko berriak, erreferentzia biblio-
grafikoak, mito eta kondairei buruzko
istorioak eta antzerakoak datoz. Serio-
ak izan gara beti eta seriotasun hori



O.E.

Javier Marcos

'T.U. LANKIDE' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

“Enpresan ez ezik, etxean ere ‘T.U. Lankide’ aldizkaria irakurtzea da gure hurrengo erronka”

HEMENDIK AUERRERAKO ALDAKETAK

**“Diseinua aldatu dugu aldizkaria modernoagoa,
erakargarriagoa eta irakurterazagoa egiteko eta eduki
aldetik ere gai ez hain teknikoak edo serioak sartuko ditugu”**

HELBURUAK

**“Hasieran bezala, kooperatiben artean komunikazioa izatea
da helburuetako bat; bestea, kooperatibaren printzipio,
balore eta filosofiaren berri ematea”**

apurtzeko asmoarekin edo, denbora-
pasak ere sartu ditugu.

Orain arte jasotako informazioaren
arabera, jendeari gustatu zaizkio aldake-
ta hauek eta pozgarria da hori.

Lehenengo helburu berak ditu egun?

Esango nuke bi helburu nagusi ditue-
la: batetik informazioa zabaltzea eta jen-
deari esatea MCC barruan ze gertatzen den.
Hilabeteroko pilula informatiboa da alde
horretatik. Beste alde batetik, berriz, koo-
peratibaren printzipio, balore eta filoso-

fiaren berri ematea; elkartasuna bezala-
ko balore kooperatiboak erakustea, adibide
bat jartzearen.

Zein da hemendik aurrera lortu beharreko erronka?

Momentu honetan enpresa aldizkari
bat da *T.U. Lankide*, enpresa gaiak lantzen
dituelako, batetik, eta enpresan banatzen
dugulako, irakurketa enpresan bertan egi-
ten delako, normalean. Gure erronka da,
orain, enpresa aldizkaria familia aldizka-
ri bihurtzea. Badira dozena erdi bat koo-

peratiba pauso hori eman dutenak: etxe-
etara bidaltzen dute aldizkaria. Era horre-
tan, kooperatibako langileez gain, etxeok
ere irakurriko lukete.

Nola egiten duzue banaketa?

Modu ezberdinak erabiltzen ditugu.
Hilero 11.500 ale ateratzen ditugu; inpre-
ntatik Gupostera eramaten ditugu eta han-
dik egiten da banaketa. Kooperatiba
batzuetan toki estrategikoetan uzten dituz-
te: adibidez, fitxatu behar duten tokian edo
atseden geletan. Langile batzuek hantxe
irakurtzen dute eta beste batzuek etxera
eramaten dute. Gu, berez, ez gara ardu-
ratzen enpresa barruko antolaketaz edo
banaketaz; enpresa bakoitzak erabaki-
tzen du hori nola egin.

Zenbat kooperatibatan banatzen dituzue ale horiek?

Euskal Herrian ehunetik gora enpre-
satan. MCCn dauden enpresa guztietara
bidaltzen ditugu aldizkariak. Bestalde,
erretiratuta dauden langile batzuek ere
aldizkaria irakurtzen jarraitu nahi dute,
eta horiei etxera bidaltzen diegu.

Zenbat langilek egiten duzue *T.U. Lankide* aldizkaria?

Ni, adibidez, egun osorako nago, eta
beste lagun bat, egun erdiz. Horrez gain
kolaboratzaile asko ditugu, eta guztion
artean egiten dugu hileroko aldizkaria.

Nolako harrera egiten diote langi- leek aldizkariari?

Azken 15 urteetan naiz *T.U. Lankide*-
ko zuzendaria eta, epe horretan, modu
ezberdinetako inkestak egin ditugu lan-
gileen harrera jakiteko: adibidez, ezarri-
tako galdera batzuei erantzuteko inkestak
edo pertsona kopuru jakin baten inpre-
sioak jasoz. Azterketa guztiek esan dute
onarpena ona dela langileen artean.

Hala ere, bi faktore izan behar ditugu
kontuan: batetik, jendeak ez duela irakur-
tzeko ohitura handirik, eta bestetik, guk ezin
ditugula gai orokorrak landu: ezin dugu Rea-
laz edo txutxumutxuez idatzi, adibidez.
Gure errealitatea beste bat da: enpresari
buruz idatzi behar dugu eta zailagoa da jen-
deak enpresari buruz irakurtzea. Hala ere,
industria eta finantza arloko gure enpre-
setan ezagutzen dute *T.U. Lankide* aldizkaria
eta hori positiboa da, ona da. Langileen
%90ek ezagutzen du aldizkari hau, gutxi
gorabehera. Dena dela, jendearen komen-
tarioek ere asko esan nahi dute, nahiz eta
ez izan inkesta hain zientifikoak.

Zergatik agertzen dira hain artikulu gutxi euskaraz?

Helburua da aldizkariaren %15-%20
izatea euskaraz.

Kontu honekin badugu arazo bat: MCC
asko hazi da eta Euskal Herriatik kanpo
ere makina bat delegazio, enpresa, ditu.
Batzuendako ia aldizkari dena dator gaz-
telaniaz, eta beste batzuek, berriz, eus-
kararen presentzia handiegia da. Saiatzen
gara batez besteko oreka bilatzen, eta
momentu honetan hortxe jarri dugu muga,
15-20, hain zuzen ere.

Argi duguna da, bestalde, euskarare-
kiko konpromisoa dugula. Lan munduan
euskaraz bizitzea posible dela erakusteko
lanean dabiltza orain enpresak. Guk ere
geure ahalegina egin nahi dugu, baina une
honetan edizio bakarra dugu. Etorkizu-
nean, akaso bi, hiru edo auskalo zenbat
edizio izango ditugun globalizazioaren
kontu honekin.

Komunikazioa gastua dela uste dute enpresek?

Arizmendiarririk ezagutu zutenek
diote pragmatikoa eta argia zela. Bera
1960. urtean konturatu zen enpresaren
barruan egon behar den komunikazio-
ak garrantzia handia duela eta arrazoia
zuen, bere proiektuak jarraitu egiten du
egun-eta. Aldizkari hau erreferentzia
izan da langile askorendako eta berrien-
dako ere izatea nahi dugu.



Lasterketan zehar bidearen ezker aldera egiten duena lasterketatik kanpo utziko dute. Hortxe arau bat.

GOIENKARIA

Arrasate-Oñati lasterketa bihar, 'Jantzi kirola euskaraz' lelopean

Lasterketa 18:30ean hasiko dute, Garibai Etorbidean

XABIER URTZELAI

Dagoeneko hemen da Arrasate eta Oñati urtero batzen dituen lasterketa. Joan den urtean inoiz baino lagun gehiagok egin zuten korrika, 175 lasterkarik, hain zuzen, eta aurten ez dira gutxiago izango. Egin beharreko galdera, baina, ondoko da: aurten ere Aitor Uribesalgi izango da azkarrena?

Iurretako korrikalaria izan da azken bi urteotan Oñatira lehenengo iritsi dena (35 minutu eta 26 segundo, joan den urtean egindako denbora), baina oraindik gaititu barik dago Diego Garcia utzi zigun marka.

Joan den urtean ibarreko 116 lagun izan ziren proban, eta azpimarratzekoa da Oñatikoak izan zirela asko eta asko. Biharko lasterketaren gainean, baina, ikusi egin beharko da joan den

asteen Aloñako igoeran esku hartu zutenak zelan dauden. Seguru nekea aspaldi gainditu zutela, baina batek baino gehiagok oinetan egin zituen babak osatzeko denbora gehiago beharko du.

Ez ahaztu, baina, biharko lasterketa herri lasterketa dela, eta aurrealdean ibiltzea baino, euskararen aldeko ekimenean esku hartzea dela helburua.

IZENA EMATEKO ARAZORIK EZ

Biharko proban izena eman gura duenak aurrez egiteko aukera izan du, sei euro ordainduta. Eta oraindik apuntatu ez denak ez du


Ikusi egin behar joan den asteen Aloñako igoeran esku hartu zutenak zelan dauden

inolako arazorik izango, lasterketa hasi baino 15 minutu lehenagora arte antolatzaileak izenak hartzen ibiliko direlako. Hori bai, izenematea zortzi eurokoa izango da.

AUTOBUSA OÑATITIK

Urtero moduan, Oñatitik etortzen den jendearendako autobusa jarriko dute, 16:45ean Oñatiko plazan. Sari banaketa 20:00etan egingo dute.

Nagusien lasterketa hasi aurretik, baina, gaztetxoak izango dira protagonista, eurei zuzendutako lasterketak egingo dituzte eta Arrasaten. 17:15ean, 1995ean eta 1996an jaiotako benjamin mailakoek 550 metroko lasterketa egingo dute. Alebinek, berriz, 1.200 metroko lasterketa egingo dute (17:30ean), infantilek 1.800 metroko lasterketa (17:45ean), eta kadeteek ere 1.800 metroko lasterketa (18:00etan).



Esker ona Arantzabalendako

Joan den asteburuan izan ziren Bergarako presidente Iñaki San Jose eta taldeko diruzain Enrique Aperribai Zaragozan, Agustin Arantzabalekin.

Zaragozan dabilen jokalariek Bergarako taldearen partetik oroigarria jaso zuten, Agorrosin zelaiaren brontzezko irudi bat. Gogoratu Zaragozak Arantzabal fitxatu zuenean Bergarak eskertzeko moduko dirulaguntza jaso zuela.

Kirolabur

DEBAGOIENKO TRIATLOIA/EKAINAREN 4AN

Debagoiena Antxintxika Triatloi Taldekoak dagoeneko hasi dira lanean, ekainaren 4an egingo dute eta ibarreko triatloia. Joan den urtean gura baino zailtasun handiagoak izan zituzten, eta ez zuten proba egitea lortu. Ondo dakigu, baina, taldekideak penaz geratu zirela, eta aurten daukatena emango dutela probaren alde. Gainera, berrikuntzak izango dira. Ahalegina egingo dute proba herrikoia izan dadin, eta igeriketako eta korrikako ibilbideak aldatu egingo dituzte. Horrekin batera, gaztetxoendako probak ere egingo dituzte. Maiatzaren 23tik aurrera eman ahal izango da izena.

FUTBOLA/BERGARAREN ERREAKZIOAREN ZAIN

Bergarak datozen asteotan du preferente mailan jarraitu ahal izateko azken aukera. Bistan da helburua ez dela erraza, baina oraindik ez dago ezinezkorik. Lehenengo egin beharra Zestoan irabaztea izango da (zapatuan, 16:30ean). Aretxabaletak aurrerapauso handia egin zuen joan den asteen Zumarragan, eta beste horrenbeste egin beharko dute domekan Ordiziaren kontra (16:30ean, Ibarra). Mondrak mesede egin diezaiotke Bergarari, Orioko hartuko du eta Atxabalpen (zapatuan, 16:30ean). Aloñak, berriz, Hondarribiaren bisita izango du Azkoagainen (domekan, 16:30ean).

ARETO FUTBOLA/LIDERGOA JOKOAN

Hamar norgehiagoka jarraian irabazi eta gero, Eskoriatzako taldeak denboraldiko norgehiagoka gogorrenetako bat jokatu du domekan, lehenengo postuan dagoen Zierbanaren kantxan. Kategoriaz igotzea lortu zutenean, Eskoriatzakoek beste helburu bati heldu zioten, txapelketako talde onena izatea, hain zuzen. Horretarako, baina, lehenengo postuan dagoen Zierbana taldea gainditu beharko dute, eta domekan izango dute horretarako aukera onena. Ez da norgehiagoka erraza izango. Bizkaitarrak indartsuak dira etxean, eta harmailetan izaten diren jarraitzaileek badakite euren taldearen alde giroa berotzen. Eskoriatzak alde izango du taldea motibatuta dagoela, eta gorputzaldi ezin hobean daudela.



SASKIBALOIA/EMAKUMEEN SASKIBALOI TXAPELKETA

Datorren asteburuan egingo dute Arrasate Hiria Saskibaloi Txapelketa, Iturripen. Bertan, emakumezkoen lehen maila nazionalako talde onenetakoek hartuko dute esku. Txapelketan izango dira AT. San Sebastian, Getxo, Gasteizko Abaroa eta Logroñoeko Las Gaudas. Emakumezkoen kirolari bultzada bat emateko aitzakia ederra.

MENDIKO ESKIA/IRTEERA ANTOLATU DU BESAIDEK

Arrasateko Besaide Mendi Elkarteak irteera antolatu du datorren astebururako (maiatzak 13, 14 eta 15). Irteera Benasque aldera egingo dute, eta, besteak beste, Anetora igoko dira. Izena emateko egunak datorren astelehena eta martitzena dira, 19:30etik 20:30era. Kontuan izan beharrezkoa dela federatuta egotea.

SASKIBALOIA/MUGARRI ALKESAK, AZKENA

Ibarreko jokalariz osatuta dagoen Arrasateko taldeak asteburuan jokatu du denboraldiko azken norgehiagoka, Consmetalen kontra. Gorka Zurututzak zuzentzen duen taldeak indarrez hasi zuen Federazio Kopa. Lehenengo jardunaldietan maila ona erakutsi bazuten ere, azken asteotan partidu erabakigarriak galduta aukera barik geratu dira. Taldekideen lesioek gura baino eragin handiagoa izan dute.

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK



Zure etorkizuna zeuk erabakitzen duzulako.

Zeure burua hamaika egoeratan ikus dezakezu: batetik bestera bidaiatzen, bilobekin jolasten... azken bat ean, zeuk nahi duzun etorkizuna aukera dezakezu eta. Horixe baita garrantzitsuena: zeuk aukeratzea. **Guk aholkularitza-lana egingo dizugu**, eta ametsa egia bihurtzen lagunduko.

Horregatik, **Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatu** berria aurkeztu nahi dizugu. Biharko egunari aurre egiteko **segurtasuna** eta **errentagarritasuna** emango dizkizu plan honek, berak bakarrik edo gure gainerako Planekin konbinatuta. Zuk badakizulako aukeratzen.

Bihar zer egin behar duzu?

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa Bi BGAEra daude atxikita.



Urtemugako prezioak



EROSKI

Erosten jakin

AUTOAK

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



**AZKEN BERRITASUNAK • PUNTU BIDEZKO GIDABAIMENA
SEAT 600 AUTOA • FURGONETAK • UME-AULKIAK
NABIGAZIO SISTEMA • MENDIKO AUTOAK • 1 FORMULA • ASEGURUAK**

AZALA: MAITENA ARANA / ARGAZKIA: ARTXIBOA

**MIKEL LASA, S.A.**
ASEGURU ARTEKARITZA

profesionalak zure etorkizunaren zerbitzurako

Otalora Lizentziaduna, 5 behea - 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel. 943712454 - Fax 943771074
Mail: mikellasa@mikellasa.com - Web: www.mikellasa.com



=KANPAZAR



TAILERRA

Bizkaia Etorbidea z/g
Arrasate eta Elorrio arteko bidean.

ARRASATE

Tel.: 943 79 41 98 - 943 79 44 66 • Faxa: 943 77 12 84

ERAKUSKETA

Araba Etorbidea 32
Tel.: 943 79 77 66

ARRASATE



Salmenta arduraduna:

IÑIGO ALMORZA.
Poltsikoko Tel.: 656 78 12 04

GURE MARKAK:



BIGARREN ESKUKOAK:

- Autoak.
- Furgonetak.
- Lur orotarikoak.



ETA, GAINERA:
GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRUA



- 28 urte zuen zerbitzura.
- Autoak eta kamioiak konpontzeko tailerrak.
- **BRIDGESTONE** zerbitzu ofiziala.

■ MAIATZEAN, ERAKUSKETA ETA 1 FORMULAKO LASTERKETA

Automobil-erakusketa autozaleen gozagarri

MIRARI ALTUBE

Bihar, maiatzak 7, hasi eta 15a bitartean automobilak izango dira protagonista Bartzelonan. 1 Formulako lasterketa-ekin batera, 33. Automobil-erakusketa egongo da.

Automobilak gustuko dituenak Bartzelonan du hitzordua egunotan. Maiatzaren 7tik 15era bitartean 33. Automobil-erakusketa egongo dute Montjuïc-eko erakustazokan. Automobil marka garrantzitsuenak izango dira bertan. Aurretan, baina, 1 Formulako eserleku bakarrek 27 ibilgailu izango dira, zalantza barik, ikusgarrienak.

AUTO IKUSLEEN FESTA

Ikusle guztiendako antolatutako erakusketa da Bartzelonakoa. Autoekin gozatzea du helburu, eta ikusleek sortzen duten jai giroa izaten da protagonista. Auto markendako erakusleho garrantzitsua da. 250 mila metro koadroko erakustazoka gertatu dute, 250 erakustokitan banatuta, eta 50 marka hurreratuko dira autorik berrienak eta azken nobedadeak

erakustera. Milioi bat ikusle baino gehiago pasatuko da astebe-tean Montjuïc-etik. Izan ere, era guztietako automobilak aurkituko ditu ikusleak: 4x4 ibilgailuak, kirol-autoak, luxuzkoak, quadsak, 1 Formulakoak, scalextric-ak... Geldi bakarrik ez, zelan ibiltzen diren ikusi ahalko dute egokitutako zirkuituetan.

FERNANDO ALONSOREN ZAIN


1 Formulako Espainiako Sari Nagusia ardatz hartuta, atzera begirako erakusketa antolatuko dute aurten. Eserleku bakarrek 27 ibilgailu jarri dituzte ikusgai, guztiak 1 Formulako txapelketatan parte hartu dutenak.

1 Formula zaleek ez dute galdu gura domekako hitzordua, Espainiako Sari Nagusia. Zalez beteko da Montmelo zirkuitua, sarrera guztiak daude-eta salduta. 4,73 kilometro ditu zirkuituak, eta 65 bira eman beharko dizkiote pilotuek. Fernando Alonso eta Michael Schumacherren arteko norgehiagoka ikusgarria izango da, zalantza barik. Hain zuzen, azken honek dauka zirkuituko denborarik onena: minutu bat eta 17 segundo.

1 Formulako Espainiako Sari Nagusia

1 Formulako Espainiako Sari Nagusia jokatu dute domekan, maiatzak 8, Bartzelonan dagoen zirkuituan. Txapelketako bosgarren lasterketa izango da, eta Espainiako zaleak oso

pozik daude Fernando Alonso dabilelako lehenengo sailkapenean. Hala, sarrera guztiak daude salduta Alonso eta Schumacherren arteko norgehiagoka ikusteko.



Montmelo zirkuitua 1991n egin zuten eta 4,73 kilometro ditu.

PILOTUEN SAILKAPENA

PILOTUAK

01.Fernando Alonso	36
02.Jarno Trulli	18
03.Giancarlo Fisichella	10
04.Michael Schumacher	10
05.Ralf Schumacher	9

ZIRKUITUAREN DATUAK

Zirkuitua:	Bartzelona
Zirkuituaren luzera:	4,73 km
Bira kopurua:	65
Bihurgune kopurua:	11
Luzera osoa:	307,32 km
Birako errekorra:	M. Schumacher (2004, Ferrari)
Denbora:	01m17s450

ORDUTEGIAK

EGUNAORDUA	SAIOAK
Maiatzak 6, egubakoitza	11:00 1. entrenamendu saioa
Maiatzak 6, egubakoitza	14:00 2. entrenamendu saioa
Maiatzak 7, zapatua	09:00 3. entrenamendu saioa
Maiatzak 7, zapatua	10:15 4. entrenamendu saioa
Maiatzak 7, zapatua	13:00 1. sailkapen saioa
Maiatzak 8, domeka	10:00 2. sailkapen saioa
Maiatzak 8, domeka	14:00 Espainiako Sari Nagusia



KIA MOTORS

KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik aurrera*



KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*



KIA PICANTO 1.0 / 1.1
"0 km" azken unitateak
6.580 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 -
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak

*Prever plana barne.

HONDA

The Power of Dreams

HONDA CRV
27.300 eurotik aurrera*

DIESEL BERRIA



BERRIA: 6 eserleku
HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD
Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

■ BERRITASUNAK

Betiko autoak inoiz baino er

MIRARI ALTUBE

Udaberria izan ohi da modelo berriak ateratzeko garaia. 4x4 ibilgailuen ezaugarriak dituzten autoak gero eta gehiago hasi dira eskaintzen auto-etxe guztiak. Bestalde, betiko modeloak datoz, hori bai, guztiz berrituta eta zerbitzu asko eskainiz.

Erosotasunari eta segurtasunari eman diote garrantzia auto-etxeek azkeneko atera dituzten ibilgailuetan. Erosotasuna, gidatzeko orduan, eta segurtasuna errepidean. Era berean, diseinua zaindu dute asko, xehetasun txikienei ere garrantzia emanez. Halaxe datoz Seat Toledoren hirugarren belaunaldia, Ford Focusen modelo berri guztiak, Citroen etxeko C4, Fiat Stilo eta Renault Modus.

EDOZEIN ERREPIDETAN

Betiko autoez gain, edozein errepidetara egokitzen diren autoak gura dituzte orain herritarrek. Horrekin konturatuta, 4x4 ibilgailuen ezaugarriak dituzten autoak eskaintzen hasi dira auto-etxe asko. 4x4 ibilgailuen potentzia eta segurtasuna bai, baina erosotasuna eta gidatzeko samurtasuna galdu barik. Horixe eskaintzen dute, hain zuzen, Kia etxeko Sportage ibilgailuak, eta Mercedesen M Klaseak.

**SEAT TOLEDO**

Seat Toledoren hirugarren belaunaldia da; benetan gertaera garrantzitsua Seat markarendako. Kiroltasuna eta ohikoa ez den diseinua bateratzen ditu izugarriko espazioarekin eta funtzionaltasunarekin. Edozein eratako beharrak betetzen ditu eskaintzen dituen zerbitzu ugariarekin.

**KIA SPORTAGE**

Gaundiezina. Halaxe defini daiteke Sportage berria. Berlinek eskaintzen guden gidatzeko samurtasuna dauka, SUV-en motrizitatea eta estiloa, eta monobolumenaren edukiera eta aldakortasuna. Segurtasunari dagokionean, errepideko ibilbidea zaintzen duen ESP egonkortze kontrola dauka.

**CITROEN C4**

Autoa baino zerbaite gehiago da: 5 atedun autoa eta Coupea bateratuta. Segurtasuna eta erosotasuna dira autoaren ardura nagusienak. Hala, bolanteak bira ematen duen bitartean aginduak emateko botoiak geldi daude, gurpilen pneumatikoen adierazlea du eta intsonorizatutako kristalak.

**OPEL ASTRA**

Potentzia eta bizkortasun bila bazabiltza hauxe da zure autoa, Opel Astra berria. Gustura gidatzeko ideiarik berrienak eskaintzen ditu. SAFETEC sistemak bi eratako segurtasuna ematen du: aktiboa, arriskua agertu aurretik ezabatzen duena; eta pasiboa, babeserako segurtasuna.

Garaje Murillo

Auto konponketak orokorrean



Leizeaga 4 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 84

Ford**Focus** berria. **Kalitatea** bete-betean.



Giltzarik gabeko ireklara eta martxan jartzea, errepidera egokitzen diren faroak, Bluetooth sistema, ahotsaren kontrola, kontsumoan eta emisioan maximora optimizatutako motorrak, TDCi 2.0, 136 z.p. eta 2.0i, 145 z.p., bere klaseko automobilik seguruenak. Bere segmentukoan artean lehenengo automobila da puntuen %100 lortzen dituen bi inpaktuetan, aurrez aurrekoan eta albokoan.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginak



*NCAP euroaren 15. faseko proben arabera. Focus gama: kontsumo ofizialak 4.8-7,7 l/100 km-ko. CO2 emisio ofizialak 127-184 g/km-ra.

osoago eta seguruago datoz



FORD FOCUS

Xehetasunei eman diete garrantzia Focus berria diseinatzerakoan. Teknologiarik berrienak erabili dituzte diseinu fin eta, era berean, sendoa eskaintzeko. Kiroltasunez eta lasaitasun osoz gidatzeko autorik egokiena. Auto onenek dituzten zerbitzu guztiak edozeinen eskura.



FIAT STILO

Sendoa, dotorea eta aldakorra da zentzu guztietan. Barrualde benetan serosoa egin diote Stilo berriari, eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu, kontsumo baxuarekin. Gidariaren segurtasunari garrantzi handia eman diote, eta horixe da autoaren ardurarik nagusiena.



MERCEDES M KLASEA

Bai mendian, bai hirian erosotasunik handiena eta zerbitzu gehien eskaintzen dituen ibilgailua. 4x4 ibilgailuen ezaugarri guztiak ditu, baina, era berean, autoa bezain eroso da. Edozein motor aukeratuta ere oso erraz gida daiteke, eta segurtasunik handiena emateko diseinatu dute.



RENAULT MODUS

Idaia argietan oinarritutako ekipamendu praktikoa eskaintzen du: norabide-argiak, abiadura erregulatuzailea eta irekitze bikoitza duen maletarako atea. Autoa erosoagoa egiten duten osagarri eskaintza handia dakar: Duo Plus ume aulkia, atzera-martxaren radarra edo Harmony barrak, esaterako.

Erosotasunari eta segurtasunari eman diote garrantzia auto-etxeek

Diseinua asko zaindu dute, xehetasun txikienei garrantzi handia emanez

Kiroltasunez gidatzeko auto sendo eta seguruak eskaintzen dituzte

4x4 ibilgailuen potentzia dago boladan, baina erosotasuna galdu barik



ION
AUTOAK




CITROËN C4
Bost izarretako autoa



Amillaga 36 • Bergara • Tel.: 943 76 47 49/ 73

DESA/CRISTAL



- AUTOMOBILETARAKO KRISTALERIA**
Luna-muntatze berehalakoa: autobus, kamioi, turismo eta abarrentzako.
- SOLAR-CHECK LAMINAREN INSTALATZAILE OFIZIALA**
(IATrako egiaztagiriarekin)

Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia
(Iurako zuzengunean)
Tel.: 943 69 16 16
20270 IRURA

Santalaitz 6, 5. pabilioia
(IAT-ITVtik 100 m.ra)
Tel.: 943 76 36 09
20570 BERGARA

■ PUNTU BIDEZKO GIDABAIMENA

Puntu bidezko gidatzeko baimena, uda baino lehen

MIRARI ALTUBE

Puntuak izango ditugure gidatzeko baimenak uda ingururako. Arau-hausteak egin ahala puntuak kenduko dizkigute, eta lanak izango ditugu gero berreskuratzeko. Beste herrialde batzuetan emaitza onak eman ditu sistema berriak.

Gidabaimen berria izango dugu uda ingururako. Ezartzeko zaila zela eta atzeratu egingo zutela esan bazuten ere, Espainiako gobernuak lehenbailehen jarri gura du abian. Hala, segituan eitoritako, uda baino lehen.

PUNTUAK GALDU ETA IRABAZI

Gidatzeko baimena daukatenei 12 puntu emango dizkiote. Gidatzeko baimena atera berriei, hau da, hiru urte baino gutxiagoko esperientzia dutenei, oster, 8 puntu. Puntu guztiak galdu ostean baimena berreskuratu dutenek ere 8 izango dituzte.

Arauk hausten dituzten gidariei puntuak kenduko dizkiete; larritasunaren arabera 6, 4, 3 edo 2 puntu. Puntuak kendu bakarrik ez, isunak ere jarriko dituz-

te: arau-hauste larriak direnean, esaterako, 600 eurokoak.

Puntuak, berreskuratu ere egin ahal izango dira. Hala, sensibilizazio eta heziketa ikastaroa egiten duen gidariak 4 puntu berreskuratuko ditu. Ikastaroa, baina, bi urtean behin bakarrik egin ahal izango da. Bestalde, 12 puntu jasoko dituzte hiru urtean inolako arau-hausterik egin ez dutenek.

ISTRIPUAK %40 JAITSI

Puntu bidezko gidatzeko baimenaren helburua da istripu gutxiago izatea. Hala, 5 urtean %40 jaitsi gura dute istripu kopurua Estatuan. Baimen berriarekin gidariak bolantearen aurrean duten jarrera aldatu gura dute, norberak errepidean dituen erantzukizunez konturaz.

Sistema bera erabiltzen dute Frantzia, Britainia Handian, Alemanian eta Italian, eta, antza denez, emaitza onak izan dituzte guztietan.

Puntuak kendu bakarrik ez, isunak ere jarriko dituzte: arau-hauste larrietan, 600 euro

Puntuak galdu eta berreskuratu

12 PUNTUAK GALDUZ GERO

- 6 hilabete baimen barik lehenengo aldiz, hurrengoetan 12 hilabete
- Ikastaroa egin behar (30 ordu)
- Azterketa egin behar baimena lortzeko

PUNTUAK BERRESKURATZEKO

- Ikastaroa (2 urtean behin): 4 puntu
- Hiru urte zigorrik jaso barik: 12 puntu

PUNTUAK KENTZEKO SISTEMA**-6 puntu:**

- Mozkortuta gidatzea: 0,75 mg/l baino gehiago
- Mozkortuta gidatzea profesionalak: 0,3 mg/l baino gehiago
- Drogak hartuta gidatzea
- Alkohol probarik egitea ez gura izatea
- Kontrako noranzkoan gidatzea
- Era arriskutsuan gidatzea
- Autobidean 181 km/h gidatzea
- Errepidean 136 km/h gidatzea
- Hirian 81 km/h gidatzea
- Garraiolariak behar baino ordu gehiago gidatzea

-4 puntu:

- Mozkortuta gidatzea: 0,25 eta 0,75 mg/l artean
- Mozkortuta gidatzea profesionalak: 0,15 eta 0,30 mg/l artean

- Automobileen 8 lagun joatea
- Errepidera objektu arriskutsuak botatzea
- Ardura gabe gidatzea
- Autobidean 161 km/h gidatzea
- Errepidean 130 km/h gidatzea
- Seinaleak ez errespetatzea: stop, pasatzen utzi, oinezkoek pasatzen utzi, biribilguneetako lehenetsua edo semaforoak
- Ikusteko zailtasunekin eta era arriskutsuan aurreratzea
- Txirrindulariak arriskuan jartzea
- Ertzainen edo udaltzainen aginduak ez betetzea

-3 puntu:

- Autobidean 151 km/h gidatzea
- Errepidean 121 km/h gidatzea
- Segurtasun tartea ez errespetatzea
- Geldiune arriskutsuak egitea
- Ikusteko zailtasunekin argi barik gidatzea.
- Itsualdia eragitea argiekin
- Eskuko telefonoz berba egiten gidatzea

-2 puntu:

- Autobidean 141 km/h gidatzea
- Errepidean 111 km/h gidatzea
- Behar ez den bezala aurreratzea
- Debehatutako lekuan bira ematea
- Segurtasun-uhalek barik gidatzea
- Ume bat behar duen aulki barik eramatea

MARKIEGI autoak

Lizeaga 1
San Lorentzo industrialdea
BERGARA
Tel.: 943 76 35 09

CHATENET berria
gidabaimenik
gabe
erabiltzeko



LENIZ
ESKORIATZA



- **Konponketak: Txapa, Margoak, Mekanika**
- **Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa**

■ NABIGAZIO SISTEMA

GPSa, inon ez galtzeko azken berrikuntza

M. A.

Toki ezezagunetara joaterakoan ohikoa izaten da bidean galteza. Orain despistatuenek ere ez daukate galtzeko aitzakiarik: sateliteak ditugu gure zerbitzura uneoro non gauden esateko.

Gero eta automobil gehiagok daukate GPSa, hau da, nabigazio sistema. Uneoro zein lekutan gauden esaten digu GPSak. Era berean, guk joan gura dugun tokira heltzeko zenbat falta den eta zelan heldu azalduz joaten da.

NABIGAZIO TXARTELA

Satelite bidez dabil GPSa, baina nabigazio txartela behar-beharrezkoa du kokatzeko. Hala, mapa ezberdinak dituen txartelak daude: Espainiakoa, Portugalgoa, Frantziakoa... Aginte-mahaian daukan pantailan agertzen da mapa, eta sateliteak autoa kokatzen du bertan. Mapa osatuak dituzte nabigazio txartelak, eta

herriak, auzoak, kaleak eta eraikinen izenak ere agertzen dira askotan. Gasolindegia non dauden, hondartzen izenak eta beste horrenbeste informazio dute. Horrela bada, zein tokitara joan gura duen galdetu besterik ez du gidariak, eta GPSa aginduak ematen hasiko zaio: eskumara biratu, aurrera egin... Hainbat aukera

Mapa ezberdinak dituzten nabigazio txartelak daude, eta aldioro berritu behar dira

Bi dimentsiotako mapek gutxienez hiru satelite behar dituzte inguruan kalkuluak egiteko

ematen ditu, gainera, biderik motzenetik, autobidean sartuta... Era berean, zenbat kilometro falta diren eta zenbat denbora behar duen heltzeko adierazten du.

Hainbat eratako mapak daude: batzuek latitudea eta longitudearen berri ematen dute bakarrik, eta beste batzuek altitudea ere adierazten dute. Azken hauek hiru dimentsiotakoak dira. Mapak dituzten nabigazio txartelak, baina, aldioro berritu egin behar dira; bestela, zahartuta gelditzen dira.

SATELITE BIDEZ

Autoaren kokapena sateliteen bitartez kalkulatzen du GPSak. Bi dimentsiotako mapek gutxienez hiru satelite behar dituzte kalkuluak egiteko, eta hiru dimentsiotakoek lau. Guztira 28 satelite dabilta lurraren inguruan biraka, eta GPSak berak adierazten du zenbat dituen gertu. Behin kokapena jakinda gainerako informazio guztia osa dezake GPSak: abiadura, distantzia, denbora... Distantzia, baina, ez dute sateliteek zuzenean adierazten, ABSan dituen sentsooren bitartez kalkulatzen du gupilak mugitu ahala.



Aginte-mahaian dagoen pantailan dago kokatuta GPSaren mapa.

M.A.

ESTATU BATUETAKO GOBERNUAREN SATELITEAK

Global Positioning System edo GPS satelite bidezko nabigatzeko sistema da. Estatu Batuetako Defentsa Departamentuak jarritako 24 satelitek gidatzen dute, eta lehenengo satelitea 1978an jarri zuten abian. Hasiera baten militarrek bakarrik erabil zezaketen, baina 1980an edonork erabiltzeko baimena eman zuen gobernuak.

GPS sateliteak lurretik 22 mila kilometrora daude espazioan, eta lurrari bi bira oso ematen dizkiote 24 ordu baino gutxiagoan. Bakoitzak 920 kilo pisatzen ditu eta 518 zentimetroko luzera daukate.



Profesionalak gara.
Bai salmentan,

bai ondoren ensakintzen diren zerbitzuetan ere.



Mercedes-Benz

GOIKO-LENIZ

Araba Etorbidea z/g ARRASATE • Tel.: 943 71 19 03



**ESKAINTZARIK
ONENA**



UDALAITZ

■ SEAT 600

50 urte ditu seiszientosak

M.A.

Zeinek ez du ezagutzen Seat 600a? 50eko eta 60ko hamarkadetan izugarritzko arrakasta izan zuen. Askok hazi dira seiszientosarekin eta askok daramate bihotzean. Aurten, urrezko ezteiak betetzen ditu, eta halaxe ospatuko dute zaleek.

Aspaldi utzi zioten egiteari, baina oraindik han eta hemen ikusten dira. Izan ere, zale asko ditu seiszientosak; baita gure artean ere. Hain zuzen Euskal Herriko lau probintzian daude zaleen elkarteak: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

ARRAKASTA HANDIA

Genevako erakustazokan aurkeztu zuten 1955ean. Dante Giacosa ingeniari italiarraren diseinua izan zen. Fiat etxeak eraman zuen erakustazokara, baina Espainiako Seat lantegikoei izugarri gustatu zitzaion, eta lizentzia erosi zieten. Hala, 1957an saldu zuten Espainian egindako lehen autoa. 633 zentimetro kubiko eta 21,5 zaldi-potentziako motorra zuen. 95 km/h-ko abiadura hartzen zuen gehienez, eta 70.000 pezeta inguru balio zituen. Izugarritzko arrakasta izan zuen, bai espainiarren bai euskaldunen artean, eta sinisteko zaila bada ere, orduko familiak, hiru eta lau



Oso ondo zaindu du seiszientosa Goio Makatzaga arrasatearrak, eta bat ere arazo barik pasatzen ditu IATak.

M.A.

SEISZIENTOSA, OPARI BIKAINA

Etzi, maiatzak 8, beteko ditu 35 urte Goio Makatzaga arrasatearraren seiszientosak. Goiok, baina, ez dauka hasieratik; orain dela 15 bat urte oparitu zion Seat lantegiko kide batek. Ez zegoen batere egoera onean, eta kontu handiarekin konpondu zuen; motorra, esaterako, erabat berritu zion. Bi ate ditu, eta zuria zen hasieran: "Neuri gehiago gustatzen zitzaidan zuria, baina margotzeko konbentzitu ninduten, eta orain gorria da". Jaso zuenean baino pieza original

gehiago ditu orain, poliki-poliki seiszientosaren osagaiak jartzen joan delako. Gainera, oso ondo dabil oraindik, eta IAT guztiak ondo baino hobeto pasatzen ditu. "Noizbehinka erabiltzen dut, baina beldurra ematen dit aparkatuta utzi eta zerbait egitea. Atentzioa ematen zuen lehen, eta orain kolore gorri horrekin gehiago", dio Goiok. Gustuko du garai bateko autoak konpondu eta zaintzea, eta halaxe egiten du bere eskuetara datozen guztiekin.

633 cc-ko eta 21,5 zaldi-potentziako motorra zuen; 95 km/h-ko abiadura hartzen zuen gehienez

seme-alabadunak, gustura asko ibiltzen ziren auto txikian hara eta hona aste bukaeretan.

Hasieran modelo bakarra atera bazuten ere, gerora aldatzen joan ziren. Hala, bi atedunak eta lau atedunak zeuden, kabrioletak... Errepide guztietako erregea izan zen egiteari utzi zioten arte, 1973an hain zuzen. 800 mila egin zituzten 16 urtean; horietatik asko eta asko oso egoera onean gorde dituzte seiszientos-zaleek.

ERAKUSKETA ZUMARRAGAN

Gipuzkoako Seiszientos-zale Elkarteak antolatuta, autoen erakusketa egingo dute maiatzaren 15ean, domeka, Zumarragan. Motorraren Aste barruan antolatutako ekitaldia da, eta dagoeneko hirugarren aldiz egingo dute aipatutako erakusketa. Euskal Herriko 30 auto baino gehiago hurreratuko dira Zumarragara, eta Madrildik ere gerturatzeko asmoa daukate. Zalantza barik, erakusketa dotorea eskainiko die Seiszientos-zale Elkarteak seiszientosa gus-tuko dutenei.

OÑATI GARAJEA

Automobilien salmenta eta konponketa · Peugeot '05 gama osoa



PEUGEOT

OÑATI Garajea

Erakusketa eta tailerra:

Goribar auzoa 9 - Oñati / Tel.: 943 78 13 50 - Faxa: 943 78 33 69 Posta-e: garageonati@euskalnet.net

GRAN VITARA 3 / 5 ate

Leku guztietara eramango zaituzten 3 edo 5 ate!



KANPAZAR

TAILLERRA: Bizkaia etorbidea z/g
Tel.: 943 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba etorbidea 32
Tel.: 943 79 77 66
ARRASATE
kanpazar@euskalnet.net

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko
modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko
informazioa:

www.goiena.net/blogak

Posta-e: azabarte@goiena.com

Tel.: 943 76 92 70



■ UME-AULKIAK

Umeak, aulkian eta lotuta

M.A.

Umeak ezin dira edozein modutan eraman automobilean. Bakoitzak bere aulkia behar du, eta ondo lotuta joan behar da. Pisuaren eta adinaren arabera aulkia behar da, eta ondo lotuta eraman ezan isun handiak jar diezazkigukete.

Gero eta zorrotzagoa da legea umeak autoan zelan eraman esateko orduan. Hala, isunak ere gero eta handiagoak dira behar bezala lotuta ez badao umea. Izan ere, gurasoak dira umearen segurtasunaren azken arduradunak.

BOST TALDE

Pisuaren eta adinaren arabera bost talde daude 0 urtetik hasi eta 12ra bitartean. Debeakututa dago ume hauek guztiak autoaren aurreko jarlekuetan eramatea; horretarako tresna homologatuak behar dira. Ume-aulkia aurrean jarriz gero airbag-a desaktibatu egin behar da nahi eta nahi ez, eta hori saltoki ofizialetako teknikariek egin beharreko lana izaten da.

Lehenengo bi taldeetako umeen aulkia, 13 kilo arteko umeenak, autoaren martxaren kontrako noranzkoan jarri behar dira. Bederatzi eta 18 kilo arteko umeek aurrera begira joan behar dute euren aulkietan. 15 eta 25 kilo artekoek ere aurrera begira joan behar dute, eta 150 zentimetro baino gehiago badituzte helduendako

SEGURTASUNeko SASKI-JESARLEKUAK			
	PISUA	ADINA	EUSTEKO SISTEMA
0 TALDEA	0-10kg	0,9 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun sehaska jaiio berrientzako. • Segurtasun jesarlekua atzerantz begira.
0+ TALDEA	0-13kg	2 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun jesarlekua atzerantz begira.
1 TALDEA	9-18 kg	9 hilabete- 3 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun jesarlekua aurrerantz begira.
2 TALDEA	15-25 kg	3-6 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkarraldea duen jesarlekua.
3 TALDEA	22-36-kg	6-12 urte	<ul style="list-style-type: none"> • Jesarleku jasotzailea.

segurtasun uhala erabil dezakete. Bukatzeko, 22 eta 36 kilo artekoek eserleku jasotzailea erabiliko dute, eta autoaren segurtasun uhalarekin joango dira lotuta.

ESERLEKU HOMOLOGATUAK

Umearendako sistemarik egokiena aukeratzeaz gain, oso garrantzitsua da sistema homo-

logatua izatea. Horrek jakinarazten digu gure eserlekuak segurtasun-proba guztiak gainditu dituela eta ezarritako arauak betetzen dituela. Homologatutako aukiek etiketa berezia eramaten dute. Ume-aulkia erosterakoan norberaren autorako egokituta dagoen ziurtatu behar da, eta samur jar daitekeela probatzea

komeni izaten da. Auto batzuek ez dute aulkirik jarri beharrik izaten, atzeko eserlekuak umeendako egokituta dituztelako.

Oso garrantzitsua da umeak behar bezala lotuta eramatea eusteko sistema egokiarekin. Egingo dako ikerketen arabera errepi-deetan hildako umeen %80 bizi-rik egongo lirakeke.

CITROËN prefere TOTAL

Sebastian Loeb.
2004 WRC Munduko rally txapelduna
2005 urteko Montekarioko rallyko irabazlea

Citroën. 2003 eta 2004 urteko WRC Munduko rally txapelduna, marken kategorian.



CITROËN C4 BERRIA. TEKNOLOGIAREN BOTEREA.

Urteko merkaturatze handiena dator • Citroënek, 2004 urteko munduko rally txapeldunak, Citroën C4 berria aurkezten du. Teknologia duen botere guztia, bere alorreko aerodinamika onenarekin. Bi modelo, coupea eta 5 atekoa, bertsioren arabera bere kategoriako kotxerik aurrerakoiena bihurtzen duten ekipamenduarekin: nahi gabeko karril aldaketarako alerta sistema • aginte zentral finkoak dituen bolantea • telefonoa atxikia duen Navidrive nabigatze sistema • ESP, ASR, ETA ABS segurtate sistema aktiboak, balaztatze banatzaile elektronikoarekin eta urgentziaz balaztatze laguntzarekin • Bi-xenon faro autodirekzional • Motorizazioak: Diesel HDi 138 ZP-rainokoa eta gasolina 180 ZP-rainokoa.



Kontsumo mistoa (l/100 Km.) / CO₂ igorpena (g/Km.): C4: 4,7-8,4/125-200

Aurkezten den modeloa Citroën C4 Coupé VTS.

ETOR ZAITEZ:

TALLERES CHAPIME. Citroën kontzesionario ofiziala
Araba Etorbidea z/g. Tel.: 943 79 45 22. Arrasate

CITROËN
NO TE IMAGINAS LO QUE
CITROËN PUEDE HACER POR TI

■ ASEGURUAK

Gidariaren araberako prezioa

M.A.

Automobila erosi ostean egin behar den lehenengo kontua aseguruak kontratatzea da. Hori barik ezin gara ibili errepidean. Aseguruetxeek hainbat aukera eskaintzen dituzte, eta norberak hautatzen du komenigarri ikusten duena.

Gidabaimena atera eta autoa erosterekin bukatu dugula uste badugu, oker gabiltza. Autoak aseguru behar du nahi eta nahi ez. Aseguruan ordaindu beharrekoa, gainera, gidariaren eta autoaren ezaugarrien arabera da.

ASEGURU MOTAK

Autoaren aseguruak kalte material eta pertsonalenganako erantzukizun zibila hartzen du. Derrigorrezkoa bada ere, norberak aukeratzen du zelakoa gura duen.

Auto berria erosten dutenek arrisku osoko aseguruak aukeratzeko dute gehienetan. Garestiena da, baina autoak istripua izanez gero aseguru-etxea egiten da gas-



Autoak derrigorrez behar du aseguruak, eta ordaindu beharrekoa gidariaren eta autoaren ezaugarrien arabera da.

tu guztien kargu. Batzuek frankiziak ezartzen dizkiote merkeagoa izan dadin. Frankiziek autoak jasandako kaltearen lehenengo

diru kopurua gidariak ordaindu behar du, eta hortik aurrerakoa aseguru-etxeak. Autoak urtetxo batzuk baldin baditu, oster, hiru

garrenak babesten dituztenak izaten dituzte gurago.

Aseguru-etxeek beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte,

Isunak kentzeko defentsa eta gidabaimena kendu osteko kalte-ordaina eskaintzen dute

isunak kentzeko defentsa eta gidabaimena kendu osteko kalte-ordaina, esaterako.

EZAUGARRIEN ARABERAKOAK

Gidariaren eta autoaren arabera ordaindu beharrekoa ez da berdina. Gidariaren adina, gidabaimena noiztik daukan, autoaren adina eta potentzia hartzen dira kontuan. Emakumeendako, gainera, %10 merkeagoa izan ohi da.

Puntukako gidabaimena datorrenean, aurtengo udan hain zuzen, kontuak aldatu egingo dira. Istripu kopurua murriztu egiten bada, eta horixe da gidabaimen berriaren helburua, aseguruaren prezioek behera egin beharko lukete. Aseguru-etxeek, baina, ez daukate batere argi zer gertatuko den.



MAPFRE
AUTOMÓVILES

Ibilgailua gogoan darabilzunean, izan Mapfre gogoan

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitetz

- *Renting*
- *Finantzaketa*
- *Automobilaren Mapfre kluba*
- *Aseguruak*

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
943 79 89 00
ARRASATE

Mapfre
Arrasate pasealekua 37
943 71 17 23
ARRASATE

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
ONATI

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

■ FURGONETAK

Furgonetak, gura beste leku

M. A.

Gero eta furgoneta gehiago ikusten dira errepidean. Izan ere, gero eta gazte gehiagok erosten du. Batzuek lo egiteko gertatuta hartzen dute, eta beste batzuek erosi ostean gertatzen dute. Leku handia eskaintzen dute furgonetek, eta horixe da hain zuzen erosteko arrazoi nagusia.

Sasoi baten lanerako erabiltzen zituzten furgonetak, eta garraio-larien, iturginen edo igeltseroen ibilgailua zen. Gaur egun, ostera, han eta hemen ikusten ditugu, eta lanerako baino, aisialdirako dira gehiago.

LO EGITEKO GERTATUTA

Aste bukaerak pasatzera edo eskiatzera joateko, bidaia luzeak egiteko edo bizikletak eramateko; baita ume-kotxeak tolestu barik sartzeko ere. Furgonetek daukaten lekuak aukera handia ematen du, eta horrexegatik gero eta gazte gehiagok erosten ditu. Askok lo egiteko gertatuta erosten dute, berogailu, ur-andela eta sukaldearekin hornituta. Beste batzuek nahiago dute furgoneta erosi eta gero euren gustura moldatu. Hala, norberak diseinatu eta arotzaren laguntzarekin mahaia, armairuak, eta ohea jarri dizkionak ere gero eta gehiago dira.



AINTZANE GARDOKI

KEPA LARREA / VOLSKWAGEN CALIFORNIA

Dagoeneko lau urte ditu Keparen Californiak, baina ez da lehenengoa. **B**eti gustatu izan zaio furgonetarekin oporrak pasatzeko era; hala, 1992an Combi zahar bat erosi zuen, "oso hippia", eta abentura benetan politak bizi izan zituen bertan: "Holandaraino joan ginen harekin, baina

90 km/h-ko abiaduran egun pare bat behar izan genituen". Oraingoa bizkorragoa da noski, eta ondo gertatuta dauka: ohe bi, 40 litroko hozkailua, sukaldea bi surekin, ur garbia eta zikina gordetzen dituen andelak, armairuak, eta berogailua ditu. Hau da, bidaian joateko etxe txikia da.

LAGUN GARAJEA



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20



AUTOMIZIOA

HEZIKETA ARAUTUAN:

- Elektromekanika (erdi maila)
- Karrozeria (erdi maila)
- Automozioa (goi maila)

ETENGABEKO HEZIKETAN:

- Kualifikazioko ikastaroak (Katalogo modularra)
- Enpresei egokitutako ikastaroak
- Soldadurako ikastaroak



AURRE MATRIKULA EKAINAREN 1etik 8ra:

ELGOIBAR B.H.I. Arregitorre 2 Tel.: 943 74 80 19 • bulegoa@elgoibarbhi.net www.elgoibarbhi.net



M.A.

ELENA ZARATE / OPEL VIVARO

Urtarrilean erosi zuten Elenak eta Ekaitzek furgoneta, eta Aste Santuan probatu zuten Pirinioetan. 5 jarleku ditu, eta lo egiteko gertatu barik erosi arren, arotzaren laguntzarekin ohea, mahaia eta armairu bi jarri dizkiote. Oraindik ez daukate guztiz gertu, gortinak falta zaizkie, baina hara eta hona ibiltzeko ez dute aitzakiarik behar.



M.A.

ANE GAZTAÑAGA / MERCEDES VITO

iker eta Xabiren gurasoek ume-kotxeak tolestatu barik sar daitezkeelako erosi zuten furgoneta: "Beste bati ikusi genion, eta benetan eroso iruditu zitzaigun aukia osorik sartu eta ateratzea". Eta aurreko jarlekuetik atzekoetara pasatzeko zeukan lekuak konbentzitu zituen guztiz. Zazpi jarleku ditu, eta ez daukate lo egiteko gertatuta, oraingoz.



M.A.

AITZIBER ARANBURUZABALA/ FIAT DUCATO

Fruta saltzaile bati erosi zioten orain dela lau urte. Ordenagailuz diseinua egin zuten gero, eta lagun batekin, arotza berau, lo egiteko lekua jarri zioten. Bi taula bikoitz dituzte, eta taulok mugituta ohea egiten dute. Mahaia, kaxoi handi bat azpian, eta armairu bi ere badituzte, eta leiho bat egin zioten sabaian. Pragaraino joan ziren urte batean furgonetarekin.




M.A.

ALEX AZKARATE / VOLKSWAGEN TRANSPORTER

Lo egiteko gertatu barik erosi zuen Alexek Transporterra orain dela hiru urte, eta gero karabanak saltzen dituzten etxe ofizial batera eraman zuen gertatzeko. Erdian daukan taula jasota mahaia da; eta jaisterakoan ohe bihurtzen da. Ez dauka sukaldarik, ezta uririk ere. Eslovenia eta Kroazia aldean ibili zen iazko oporretan.

4x4

aukera zabalena




Saltzeko eta erosteko

•

Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu






•

la berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)



4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

■ 4x4 IBILGAILUAK

Lur eta bide guztietarako ibilgailuak edozeinen eskura

M.A.

Modan daude bide guztietan ibiltzen diren ibilgailuak, hau da, 4x4 ibilgailuak. Gazte zein nagusi, baserritar zein kaletar, guztiek gura dituzte. Izan ere, edozein bidetara ondo baino hobeto egokitzen dira ibilgailuak, eta eguraldi txarrek ez dago hoberik.

Gero eta gehiago ikusten ditugu errepideetan. Handiak, txikiak, dotoreak edo erabilgarriak, baina dagoneko ez dira baserritarren ibilgailuak. Mila aukera eskaintzen dituzte, eta horrekin konturatuta gero eta gehiago saltzen dira.

ERREPIDEAN ZEIN MENDIAN

Baserritarrek erabiltzen zituzten Land Rover zahar haiek asko aldatu dira urte gutxian. Orain ez dute burrunba zaratatsurik ateratzen 4x4 ibilgailuek, eta bertan hartutako ipurdiko haiekin nagusienak bakarrik gogoratzen dira. Ondorioz, gero eta herritar gehiagok erosten ditu.

Erabilera asko eskaintzen dituztela ikusita erosten dituzte gazteek. Mendira joateko, bidaiak egiteko, eguraldi txarrek ibiltzeko eta eskiatzera joateko oso egokiak dira. Baserritarrek eta ehiztariak ere atsegin dituzte, edozein bide eta errepidetara egokitzen direlako. Bi eratakoak aurki daitezke aukeran: laburrak eta luzeak. Azken hauek, ibilgailuan



Edozein errepide eta lurretara egokitzen diren ibilgailuak gero eta gehiago saltzen dituzte Debagoiengan.

Mendira edo eskiatzera joateko eta eguraldi txarrek oso egokiak dira

lagun asko ibili behar dituztenendako dira egokiak.

ERABILGARRIAK ETA LUXUZKOAK

Ohiko automobil txikiak baino

Bigarren eskuko 4x4 ibilgailuek garrantzi handia hartu dute Debagoiengan

garestiagoak dira, baina badaude prezio txukunak dituztenak ere. Bi eratako noranahikoak daude prezioari begiratuta. Batzuk erabilgarritasuna kon-

Errepide guztietara egokitutako ibilgailua dago orain modan

tuan hartuta saltzen dira: Toyota, Suzuki, Nissan eta Mitsubishi dira markarik ezagunenak eta garrantzitsuenak. Marka bakoitzak, gainera, hainbat modelo

ditu ezaugarri ezberdinekin. 30.000 euroren bueltan dabilta haiek guztiak.

Bestetik, luxuzko ibilgailuak daude: Mercedes, BMW eta Volkswagen markak nagusi direla. Hauek 60.000 euro inguru balio dute, eta azken urteotan asko igo da euren salmenta.

Ibilgailu berriak garestiak dira askorendako. Hala, bigarren eskukoak hasi dira garrantzia hartzen. Garai baten gazteen eta nahi baina ezin zutenen kontua zen bigarren eskuko autoa erostea. Kontu hori, baina, asko aldatu da. Izan ere, bi edo hiru urte dituen 4x4 ibilgailuaren prezioa erdira jaisten da, eta ordaintzeko orduan bada zerbait. Gainera, bigarren eskukoak ere badute bermea lehenengo urtean.

ERREPIDE GUZTIETARA EGOKITUAK

Modan jartzen dabilen beste ibilgailu bat errepide guztietara egokitutakoa da, *todocamino* deritzona. Noranahikoen artean dago, baina aldeak dituzte, garrantzitsuenak erreduktore bakoak direla. Itxurari dagokionez 4x4 ibilgailuak baino baxuagoak izan ohi dira, eta dagoeneko auto marka guztiak hasi dira errepide guztietara egokitzen diren ibilgailu hauek merkatuara ateratzen. Izan ere, bai itxurari dagokionean, bai prezioari begiratuta gazteek oso gustuko dituztela konturatu dira auto etxeak, eta hurrengo urteetako berrikuntzarik garrantzitsuenak arlo honetan gertatuko dira.

ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, %10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.
 - Laguntza juridiko eta legala bidaietan
 - Deskontuak tailerretan
 - Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
 - Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorak, haizetako panoramiko eksklusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC: Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (gr/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es



RENAULT **ocaSIÓN**

Respondemos por ellos.

SUPERMÉS
DIESEL

heldu da

IA BERRIA ETA EZOHIZKO PREZIOAN

Mégane Sedan 1.5 dCi 100cv
Confort Expression

12.990 €*

ABS+SAFE, 6 airbag, irrati mono-CDarekin, klimatizazio bikoitza, ordenagailua, lainotako faroak, pintura metalizatua.

Autoa erosi eta momentuan eskuratu
Prever plana gasolina barne



Garantía
ocaSIÓN
24 meses

2004. urtean matrikulatuak

www.renault.es



*Promozioko prezioa, transferentzia gastuak barne, Plan Prever berriaren gehienezko 721,21 aurreratuko dituzu ondorengo baldintzak beteta: 5 urte baino gutxiago dituen aukerako autoa erostean eta 10 urte baino gehiago dituen berun gabeko gasolina autoa desegitera eramatean (Lege gordailua 62/2003 2003/12/30. 2004/01/01tik aurrera indarrean dago). Eskaintza baliogarria 05/05/31ra arte. Iragarritako autoa: Renault Megane Sedan Confort Expression.

CR compromiso RENAULT

SI 12 edo 14 hilabeteko garantiari SI Dirua bueltatzeari 14 egunetara edo 2.000 km-tara gustura ez bazaude SI Kontroleko 100 punturen azterketari SI Autoaren egoeraren eta jatorriaren zertifikatuari SI Renault asistentzia teknikoari garantiak irauten duen denboran SI Autoa probatzeari SI Autoa erosi eta momentuan eskuratzeari SI Zure neurria eginiko finantzaketari

AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 • ARRASATE

Tel. 943 71 24 72

AZPEITIA • ELGOIBAR • IRUN • TOLOSA


Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a

Kultura
eta
aisialdia



Maiatzaren
6tik 13ra



Gorputza
sasoian
pilates
ariketen
bidez /14

ARIKETA/ PILATES METODOA DEBAGOIENEAN

Gihar guztiak lantzeko gimnasia

DEBAGOIENDARROK ORAINTXE HASI GARA JABETZEN PILATES TEKNIKAK DITUEN ONUREZ. ZENBAIT IKASTARO ABIAN DAUDE

LEIRE KORTABARRIA

Pilates hitza ahotan dabil gurean azkenaldian. Gimnasia teknika baten izena da, asmatu zuen gizonaren deituraren haritik. Gurean, hainbat gimnasiok eta Bergarako Udalak ematen dute hura egiteko aukera. Beste gimnasia mota batzuetatik bereizten duten ezaugarriak ditu.


Pilates gimnasia gorputzak sasoi ez galtzeko asmatu zuen Joseph Pilates kirolariak. Pilates konturatu zen edozein mugimendu egiteko ere, gorputz-atal konkretu horrek ez ezik, gorputz osoak parte hartzen duela, eta mugimenduak behar bezala egiteko gorputzeko gune garrantzitsuena gerri aldea dela, toraxaren eta pelbisaren arteko gunea, alegia. Hortik abiatuta, harmonia bilatzea da Pilatesen helburua. Gihar guztiak lantzen ditu, baita txikiak ere; gainera, mugimenduak ez dira bortitzak, eta horregatik, oso egokia da errehabilitazioan dauden pertsonendako eta kirola egitera ohituta ez daudenentzako.

Hortik datorkio Pilatesi edozeinek egiteko moduko gimnasia izatearen ospea. Bergaran irakasle diharduten Nuria Rodríguezek eta Amaia Carrillok azaltzen digute: "Pilatesen alde on bat da maila asko dituela: oso errazetatik oso zailak. Hala, bakoitzarentzat molda daiteke eta egia da edozeinek egin dezakeela".

Hori dela eta, "jendea oso motibatuta dago", diote irakasleek. "Loditasun edo bizkarreko arazoak izanda ere egin dezakete. Gainera, onurak berehalak ikusten dira".

ERREPIKAPEN GUTXI

Pilates teknikaren onura nagusiak dira giharrak asko lantzen



Maila guztietako ariketak daude Pilatesen. Horregatik, edozeinek egiteko moduko gimnasia da.

LEIRE KORTABARRIA

direla, horiek luzatzen eta gogortzen laguntzen duela. Postura arazoak zuzendu nahi dituztenentzako ere oso egokia da. Eta "estresa arintzeko ere oso onada", diote Nuriak eta Amaiak.

Beste kirol edo gimnasia motetan ez bezala, Pilatesen ez dira ariketak behin eta berriz errepikatzen. "Hamar aldiz baino gehiago ez da ariketa bakar

bat ere errepikatzen. Ariketa oso gutxi egiten dira, baina oso poliki, modu zehatzean egiteko", azaltzen dute Nuriak eta Amaiak. Izan ere, gimnasia honen helburua da mugimendu bakoitzean kontzentratzea eta haietan bikaintasuna lortzea.

Ariketa gehienak egiteko nahikoa da koltxoneta bat, nahiz eta aparatu batzuk ere badauden.

Hortaz, norberak etxean ere egin dezake; hori bai, hasi aurretik, komeni da lehenengo ikastaro batera joatea, norbera aldizkari edo bideoekin saiatzea baino, irakasleok dioskuten bezala: "Komeni da, gutxienez, oinarriak ikastea, bestela, min hartzeko edo ariketak gaizki egiteko arriskua dago. Horiek dakizkien batek etxean ere egin dezake".

Pilatesen printzipioak

Pilates metodoak sei printzipio ditu. Horiek gogoan izatea ezinbestekoa da gimnasia behar bezala egiteko.

KONTZENTRAZIOA

Gure gorputzaz kontziente izan behar dugu. Ariketa bakoitzak eskatzen du gorputz-atal zehatz baten kontzentratzea. Hala eginda, gure mugimenduak hobekiago dira.

ARNASKETA

Pilatesek esan zuen: "Ariketak egin ezin badituzu ere, saiatu egoki arnasa hartzen". Arnasketa onak gerri aldeko giharrak aktibatzen ditu.

ZENTRALIZAZIOA

Pilatesen, gorputzeko gune klabea da toraxaren azpiaren eta pelbisaren goialdearen artekoa: "botere-etxea" deitu zion Pilatesek.

KONTROLA

Laguntzen digu mugimendua zuzentzen eta definitzen eta minik ez hartzen.

ZEHAZTASUNA

Horri esker, gure ariketa gero eta hobea izango da. Detalle txikietan, batez ere, bilatu behar dugu zehaztasun hori.

ARINTASUNA


Mugimendu arin bat da dinamikoa, koordinatua eta ahalegin gutxikoa. Ariketa guztiak lotuta daude.

Metodoa, bizi izandakoaren ondorio

Joseph Pilates (Düsseldorf, 1880-New York, 1967) metodo honen asmatzailearen historia argigarria da. Gaztetan, denetariko kirolak egin zituen: yoga, gimnasia, eskia, defentsa-teknikak... 1912an Ingalaterrara joan zen eta boxeolari profesional eta Scotland Yardeko entrenatzaile izan zen.

I. Mundu Gerran, alemana izateagatik kartzelara bidali zuten. Han jaio zen bere gimnasia metodoa: sasoi ez galtzeko teknika batzuk asmatu zituen, eta beste preso batzuei irakatsi zizkien, tartean gaixo edo zaurituta zeuden batzuk. Jaiki ezin ez zutenentzako, oheetan malguki bereziak ipini zituen.

AEBetan bizi izan zen 1923az geroztik eta estudio bat ipini zuen New Yorken. Bere metodoa ospea irabazten hasi zen. Min hartuta zeuden dantzariak oso gustuko zuten haren metodoa, sasoi ez galtzen laguntzen zuelako. Pilatesek berak ariketa horiek egin zituen hil arte, 87 urterekin.



Joseph H. Pilates.

AEBko famatuek ere bai

Debagoieneko hainbat gimnasiok eskaintzen dituzte Pilates ikastaroak; udalen artean, ordea, Bergarakoak bakarrik antolatu du. Lau talde antolatu dituzte, eta zenbait lagun lekurik gabe ere geratu da. "Gure politika da ahalik eta kirol eskaintza zabalena egitea ditugun baliabideekin, eta jarduera berriak sartzea. Horrez gain, partaidetza kirola sustatu nahi dugu, hau da, denek egin ditzaketen kirolak", azaltzen du Iratxe Aranburu Bergarako Udaleko kirol arduradunak. Ziur, esperientzia hau ez da azkena izango: udarako talde irekiak antolatu nahi dituzte.

Pilates berria da gurean; ez, ordea, Ameriketako Estatu Batuetan. Han, 20ko hamarkadan hasi zen ezagun egiten. Gaur egun, famatu askok egiten dute Pilates: Jennifer Aniston, Hugh Grant, Madonna, Sharon Stone, Tina Turner, Melanie Griffith eta beste askok.

JAIALDIAK/ I. DEBAGOIENKO TRIKITIXA EGUNA AURKEZTU DUTE

MAIXA LIZARRIBAR, ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLAKO ARDURADUNA

“Euskal Herriko Trikitixa Eguna antolatu ezin, eta guk Debagoienekoa antolatu dugu”

LEIRE KORTABARRIA

Altzoarra jaiotzez, apur bat arrasatearra ere bada Maixa Lizarribar trikitilaria, hango Trikitixa Eskolaz arduratzen da eta urte askoan. Joan den martitzenean aurkeztu zuen I. Debagoieneko Trikitixa Eguna. Maiatzaren 14an izango da jaialdia.

Zer da eta zergatik antolatu duzue Debagoieneko Trikitixa Eguna?

Ikasleengan pentsatuta antolatu dugu. Eurekin irtenaldiak egin ditugu Euskal Herriko Trikitixa Eguna ospatu izan denean, baina azken bi urteotan ez da egin, eta topaketa horiek ikasleendako onak direnez, pentsatu dugu aurten Debagoieneko Trikitixa Eguna antolatzea.

Gure asmoa da ikasleendako giro ona sortzea, motibazioa ematea eta beste batzuekin topatzeko eta elkar ezagutzeko aukera ematea. Gainera, nahi dugu ospakizun honi jarraipena ematea datozen urteetan, eta urtero Debagoieneko herri baten antolatzea; izan ere, Antzuolan ez beste herri guztietan dago trikitixa eskola.



Maixa Lizarribar trikitilari eta irakaslea.

Zein egitarau prestatu duzue?

Goizeko 11etan, elkartu egingo gara Eskola guztietakoak, eta datozen eskolei ongietorria egingo diegu hamaiketako batekin. Gero, kalejiran ibiliko gara. Eguerdian, Herriko plazan jaialdia egingo dute ikasle guztiak. 14:30ean bazkaria izango da, eta edozeinendako dago zabalik, ez bakarrik trikitilariendako; txartelak saltzen jarriko ditugu laster herriko zenbait tokitan eta eskoletan. Azkenik, arratsaldeko seieta, Ene Bada! taldearen emaldia izango da.

Zenbat ikasle eta zein adinetakoak espero dituzue?

Berrehun lagun inguru espero ditugu. Egia esan, ikasten ari direnak 350 bat izango dira, baina denak ez dira etorriko. Oña-

tiko eta Bergarako Musika Eskolakok Elgoibarko Musikaldian parte hartu behar dute eta ezinongo dute etorri. Adin aldetik, denetarik dago; ikasleak 8-17 urte bitartekoak dira, baina ikasle ohiak ere gonbidatuta daude.

Trikitixa entzuteko afizioa berreskuratzeko ere balio dezake jaiak?

Trikitixak goraldia izan zuen orain urte batzuk, eta orain, hori lasaitu egin da. Horregatik, jendeak uste du gutxi ikasten dutela orain trikitixa, baina jende asko dago. Zaindu egin behar da trikitixa non jotzen den, ez delako beti egokia, neurria hartu behar zaio.

Goraldi hartan, Maixa ta Ixiar taldeak zeresan handia izan zuen. Garai haien falta sumatzen duzu?

Ez. Plazak ikusten ditudanean, esaten diot neure buruari garai onean utzi nuela, oraindik giroa zegoenean. Orain jendeak beste ohitura batzuk ditu.

Bakarlari moduan ikusiko zaitugu berriro?

Orain, lasai nabil. Bakarkako lanei jarraipena emateko unea etortzen bada, egingo dugu, presarik gabe.

“Ikasleendako onak dira topaketa horiek, eta eurekin pentsatuta antolatu dugu jaialdia”

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:


- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Maiatzak 6-13

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Bedoñabe haureskolan** zabalik dago 2005-2006 ikasterterako matrikulazio epea. Hilaren 18ra arte duzue horretarako aukera, Alfontso VIII. kalean edo 943 79 76 86 telefonora deituta.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Corazon de Encina elkarteak** Kultura Asteko azken egunak ospatuko ditu. Gaur, egubakoitza, Extremadurako ibilbide turistikoaren gaineko hitzaldia

(19:30), folklore emanaldia (20:30), saiheski-jana (21:15) eta kante flamenko emanaldia (00:00) izango dira; bihar, zapatua, ohorezko topa eta dastatzea (13:00), folklore jaialdia (17:30), hainbat agintarirekin topaketa (19:30), afaria (22:00) eta dantzaldia (00:30); eta etzi, domeka, musika (12:00), txapelketen finalak (16:00), folklore emanaldia (18:00) eta txapelketetako sari banaketa (20:00).

BERGARA

► **Irukurutzeta Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. 11:00etan, pago bedeinkatua meza entzungo dute; eguerdian, salda eta txorizo jana izango da; 13:30ean, Irukurutzetara igoera; bazkalostean, erromeria, eta 18:00etan, jaitsiera.

► **Mendekoste jaietako** lehenengo ekitaldiak izango dira egunotan. Gaur, egubakoitza, Cocardito madrileño antzezlanak izango da pilotalekuan; etzi, domeka, Xamatx eta Abarka taldeek antolatuta, Haurren Eguna; eta eguenean, hilak 12, herri-kirol jokoen apustua eta jolas handien topaketa eta Aroztegi aretoaren inaugurazioa, 19:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Jaiak antolatzeko** batzar irekia deitu du udalak eguenean, hilak 12, udaletxean, 18:30ean.

ARETXABALETA

► **Griot** bidaia liburua aurkeztuko du Jon Arretxe idazleak eguenean, hilak 12, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

► **Toki Argi** egoitzakoek Parisera bidaia egingo dute maiatzaren 12 eta 19an, eta izena eman dutenek batzarra egingo

dute gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 17:00etan, hainbat argibide jasotzeko.

► **Umeen danborradan** parte hartzeko izenemate epea zabalik dago egunero maiatzaren 7ra bitartean, SUDCen lokalean, 18:00-20:00.

► **Emakumeen osasunaren** inguruko ekintzak antolatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak: yoga ikastaroa (maiatzak 7-28, zapatuetan), dieten fidagarritasunaren gaineko hitzaldia (maiatzak 11, 18:00) eta autoestimua eta norberaren ezagutza ikastaroa (maiatzak 23 eta 25). Izena emateko, jo euren bulegora, Pablo Uranga kalean.

► **Drogen prebentzioaren** inguruko hitzaldia egingo du Txabi Ruiz Ai-Laket taldeko kideak eguenean, hilak 12, Monterronen, 18:30ean.

BERGARA

► **Psikologia bizitako ezbeharren aurrean** delako hitzaldia egingo du M^a Jose Garcia adituak hilaren 9an, astelehena, San Joxepen, 17:00etan, Aulas Kutxak antolatuta.

► **Presoen aldeko bazkaria** egingo dute hilaren 14an, zapatua, eta txartelak salgai daude ohiko tokietan.

DEBAGOIENA

► Turandot aisialdi elkarteak

Debagoieneko 30-49 urte arteko taldea aurkeztuko du bihar, zapatua, Bergarako kultura etxean, 12:00etan.

ESKORIATZA

► **Aldaype elkarteak** batzar orokorra egingo du bihar, zapatua, kultura-etxean, 16:30ean.

► **Anai-arreben arteko harremanak: inbidiak, zeloak...** hitzaldia izango da eguazteneko eta eguenean, hilak 11 eta 12, Guraso Eskolan, 18:00etan.

ÓNATI

► **Aruak eta mugak** delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak hilaren 10ean, martitzena, Elkar Hezi ikastetxeko Santa Eskolastika egoitzan, 19:00etan.

► **Kirol berbaldiak** antolatu ditu Eteok. Astelehenean, hilak 9, Iker eta Eneko Pouk *7 paretá, 7 kontinente* proiektua aurkeztuko dute, 11:00etan; martitzenean, hilak 10, Imanol Agirre eta Oier Zearra pilotariak egingo dute berba. Joan gura dutenek izena eman behar dute honako helbidean: kirolak@eteo.mondragon.edu.



gure bizitzako eskaintzarik onenak

Costa del Sol 205€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
05/15etik 06/3ra. 8 egun - 7 gau. El Puerto hotela***. Mantenu erdia. 34.109 Pta

Benidorm 220€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
05/etik 06/3ra. 8 egun - 7 gau. Royal Hotela***. Mantenu osoa. 36.605 Pta

Jaca 65€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
05/1etik 06/16ra. 06/19tik 07/2ea. 8 egun - 7 gau. Altur 5 apartamentuak. 6 laguntzako apartamentua. 10.815 Pta

Tenerife 303€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
05/1etik 06/19ra. 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Catalonia Oro Negro hotela***. Mantenu erdia. **LEHEN HAURRA DOHAINIK.** 50.415 Pta

Mallorca 173€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Son Duy Hotela**. Mantenu erdia. 28.785 Pta

Londres 268€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 3 egun - 2 gau. Hegazkina. Turista hotela. Gosariak barne. 44.591 Pta

Roma 339€ Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 3 egun - 2 gau. Hegazkina. Hotela***. Gosariak barne. 56.405 Pta



EROSKI *viajes*
merezi duzu



www.viajeseroski.es



► IKUSKIZUNAK

ELGETAKO I. MAGIA MOSTRAKO SARRERAK ETA BONOAK, SALGAI

Abian da Elgetan Espaloia antzokiko I. Magia Mostra. Datorren asteburuan izango dira gala nagusia eta beste bi emanaldi. Sarrerak salgai daude Espaloia antzokian, baita egun guztietarako bonoa ere, 30 eurotan. Egubakoitzean, hilak 13, Anthony Blake mentalistaren emanaldia izango da, 22:30ean; zapatuan, hilak 14, magia gala izango da, 22:30ean. Txan, Luis Boyano Lisboako Magia Festibaleko irabazlea, Jandro Estatuko Umore Magiako irabazlea, Arcadio Frantziako Nazioarteko Festibaleko irabazlea eta Sergei Bukarekin. Azkenik, domekan, kalean egingo dute magia eta globoflexia emanaldia, 12:30ean, eta amaiera ekitaldia Morrison Port Aventura magoak girotuko du.


Non: Espaloia antzokian. **Noiz:** hilak 13, 14 eta 15. **Sarrerak:** 15, 12 eta 10 euro, eguneko. Bonoa: 30 euro.

AIPAGARRI

Xabier Azkoitia

URRETXU

Bergarako Santa Marina eliza-ko parrokoak bi hitzaldi egin ditu Madrilén. Azaldu du zertan datzan etorkinekin eratu duten kooperatiba. Izan ere, Bergaran aitzindariak dira era honetako proiektuetan. Hitzaldiok Comillasko unibertsitateak eta Unibertsitate Autonomoak antolatu dituzte.



Xabier Bengoetxea

AGINAGA

Real Sociadateko presidenteordea da eta kirol arloa da bere ardura. Horretaz gain, giza baliabideetako zuzendaria izan da Bergarako Mayc-Candy lantegian orain dela gutxira arte. Orain, ordea, Fagorrera egin du aldaketa. Zuzenbidean lizentziatua da eta Realeko jokalaria izandakoa.



Kristina Pavo

ANTZUOLA

Antzuola Ikerketa Bekari esker herriko toponimiaren gaineko ikerketa egin du Kristina Pavo filologoak. Atzo, eguena, aurkeztu zuen lana Iratxe Lasa Euskaltzaindiako aholkulariarekin batera. Ikerketa lan horren helburua izan da herriko toponimia batzea, aztertzea eta arautzea.



HILDAKOAK

- Maria Ana Etxeandia Rekalde.** Arrasaten, apirilaren 27an. 84 urte.
- Maria Otadui Astola.** Arrasaten, apirilaren 28ean. 91 urte.
- Milagros Orobengoa Beitia.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 67 urte.
- Vicente Perea Nuñez.** Aretxabaletan, apirilaren 30ean. 94 urte.
- Olatz Rementeria Odrizola.** Oñatin, maiatzaren 1ean. 14 hilabete.
- Agustina Madina Aldanondo.** Oñatin, maiatzaren 2an. 88 urte.
- Angeles Arin Kortabarria.** Antzuolan, maiatzaren 2an. 82 urte.
- Victor Beitia Zendoia.** Oñatin, maiatzaren 4an. 82 urte.
- Isidora Barquina Madarieta.** Bergaran, maiatzaren 4an. 90 urte.
- Maria Aramendia Gaintza.** Bergaran, maiatzaren 4an. 93 urte.
- Jose Luis Lete Lizarralde.** Bergaran, maiatzaren 4an. 69 urte.



Rufino Arantzeta eta Bittori Irazabal elgetarrak orain dela 65 urte ezkondu ziren maiatzaren 1ean. Orduetik Oñatin bizi dira. Egun berezi hori ospatzeko, maiatzaren 1ean Oñatiko Larringain elkartearen familiakoekin bazkaria egin zuten. Seme-alaben eta biloben partez, zorionak!



Kontxi Laskurain eta Jose Mari Iturbe antzuolarrak 1980ko maiatzaren 3an ezkondu ziren, Arantzazun. Domekan zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte familiakoekin Pasaian. Familiakoekin partez, zorionak!

Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik jarri
nahi baduzu,
etor zaitez
GOIENKARIAren
ordezkaritzetako
batera.

Goienkaria
Astero 18.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 82 €.



Saioa Belategi arrasatearra eta **Juan Carlos Pascual Pasku** oñatiarra bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Bazkaria Marisa jatetxean egingo dute. Familiakoekin eta lagunentzako partetik, zorionak eta Argentinara egingo duzuen bidaiari ondo-ondo pasa!



Ruben eta **Ainhoa** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Erguineko elizan. Bazkaria Zelai-Zabal jatetxean izango dute. Ondoren, eztei bidaiari Estatu Batuetara eta Maia Erriberara joango dira. Zorionak bioi, koadrilakoekin partetik!

ESKER ONA

**Donato
ormazabal Erostarbe**

Bergaran hil zen 2005eko apirilaren 24an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko maiatzaren 6an.

URTEURRENA

**Armando
Gallastegi Etxaniz**

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 8an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Jesus
Larrañaga Lizarralde**

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 7an, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

**Igor
Eizagirre Bengoa**
Txuma

Alai zintugun hurbilean, alai zaitugu urrunean.



Zure lagunak.
Arrasaten, 2005eko maiatzaren 6an.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 7 / Max.: 23° / Min.: 8°/



Goiz partean zerua lainotsu egongo da eta lanbroa egingo du. Arratsaldean, berriz, laino bakan batzuk bakarrik geldituko dira. Norabide aldakorreko haizea ibiliko da, ekialdekoa nagusituz. Temperatura minimoak ez dira aldatuko eta maximoak moderatuki igoko dira.

DOMEKA, 8 / Max.: 25° / Min.: 10°/



Zerua hodeitsu egongo da goizean eta lanbroa egingo du. Arratsalderako ordea, bero-hodeiak sortuko dira, bereziki barnealdean. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da, tarte biziakin. Tenperaturei dagokienez, ez dute aldaketa nabarmenik izango.

EGURALDIA/KLIMA

Eguraldia eta klima ez dira gauza bera

Orain arte askotan aipatu ditugu honako hitzak: Eguraldia, Meteorologia eta Klimatologia. Hirurak bata bestearekin zerikusi handia izan arren, desberdinak dira.

Meteorologiak eguraldia eta klima, biak batzen ditu. Eguraldia, tenperatura, hezetasuna, euria, haizea, hodeiak eta abar luze bat kontuan hartzen dituen zientzia da. Egun eta toki jakin baten zein eguraldi egin duen adierazteko balio du. Eguraldia epe laburrean aztertzen da, klima berriz epe luzean.

Klima denbora bitarte luzean, lurralde bateko eguratsaren egoera baldintzatzen duten gertaera meteorologikoen multzoa da. Eguraldia aztertzeko une jakin bati dagozkion elementu horiek guztiak hartzen dira kontuan, baina klimari elementu horien elkarrekiko ekintza iraunkorra aztertzea dagokio. Munduan eguraldi azterketa sakona egin ondoren bost klima nagusi bereizi dituzte adituek. Euritsu beroa, lehorra, euritsu epela, heze hotza eta ipar eta hego buruetakoak. Horiek guztiak aztertzen dituen jakintza alorrari berriz, klimatologia deitzen zaio.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:



www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Liturgi otoiiza	▼	Toki horretan	▼	... Junkera, musikari
	Geu		Pepe ..., kazetaria		
	*Izena	▶			
	Burusi, ohe-estalki				
*Deitura	Pausaldi, geldialdi	▶			Fosforoa
Inguruan	Euskal disketxea				Elementu kimikoa
				Kasik	▼
				Area	
Behean					Ikaskizun
Osmioa					
	Bokal errepikatua	▶		501	
	Isilean			Itsaslapurra	▼
Muskulu-uzkurdura				Pilotan tanto ziarra	▶
Jarrera				Puska	
Nori atzizkia				Nafarroako herria	▶
Kirolaria				Modu	
					Kontsonantea
					Zirkonioa
Herri nafarra					▼
Jantzi mota					
				Jardun	▶



GIARTZU DERMOSTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzaren kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Kontuz, badator eguzkia!

Honako hau sail irekia da; bertan, laruaren eta gorputzaren osasunaz eta estetikaz sortutako edozein galdera edo kezak izango dute erantzuna.

Hirrikatzen gaude neguan erabili ditugun arropa guztiak kendu eta eguzkitan etzanda egoteko..., eta orduantxe sortzen dira arazoak.

Gaur egun daukagun beste informazio sekula ez dugu izan.

Horregatik, tamalez, ordu piloia egon gara eguzkitan, izpien aurka babestu barik. Kontua zen beltzaren jartzea. Baina horrek gorridurak eta erreduak sortzen zizkigun laruazalean. Sarri-

tan ikusi dut hori nire kontsultan.

Oraingoan, hiru jarraibide egoki emango dizkizuet, beltzaren jartzeko arriskurik hartu barik.

1. Gure aurpegi zein gorputzaren laruazala egoki aztertu (profesional aditu batek).

2. Krema egokia eman etxean, eguzkitan jarri baino 30 edo 40 minutu lehenago (horrela egin ezean ez zarete babestuta egongo).

3. Ez etzan eguzkitan eguerdiko 12:00etatik 16:00ak bitartean eta ez paseatu arratsaldeko 5ak baino lehen.

Jarraituko dugu hurrengoan.

Marisabel Hurtado
Dermatizista

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



MAMUAK
Neskatoak mamua

ikusi du eta:

- Barkatu, mamu jauna, baina sudurzapia erori zaizu.

Eta mamuak:

- Ez da sudurzapia. Nire alaba da!

FAR-MAFIAN

Zezenaren adarrak gerrian sentitzen dituen entzierroetako korrikalaria baino larriago eta presatiago sartu da botikara gazte zarpail, txima luze eta zikin bat.

Patrikatik nola edo hala tolestutako errezeta atera eta farmazialariari erakutsi dio. Honek, medikamentua bilatu eta aurkitutakoan eman egin dio:

- Bost mila pezeta.

Gazteak medikamentua hartu eta billetea mostradorearen gainean utzita atera da kalera.

Farmazialaria orduan jabetu da:

- Nekabena! Milakoa

utzita alde egin du gazte alu horrek. Tira, zer egingo diogu, bada! Oraingo honetan, 400 pezeta besterik ez ditut irabaziko!

BONBOI PARTIKETA

Matematika ordua da eta Karnele andereñoak honako ariketa hau jarri dio Patxiku Txikiri:

- Ea, Patxiku, adi

entzun. Zuk hamasei bonboi dituzu eta zure anaiarekin partitu behar dituzu. Zenbat emango dizkiozu?

- Lau!

- Patxiku, mesedez, ez al dakizu zatiketak egiten edo?

- Nik bai, baina nire anaiak ez.

HEGAN

- Zuek ba al dakizue nola orientatzen diren Tolosako hegazkin pilotoak?

- (!!!)

- Errepideetako seinaleak irakurritz!

SOLUZIOA

I	R	A	•	A	K	A	J
A	Z	T	I	R	I	Z	•
G	•	A	T	E	T	A	
S	A	R	A	•	I	R	•
A	O	I	Z	I	S	O	D
K	I	D	•	K	I	T	•
I	D	•	A	A	•	S	O
•	N	A	I	D	Z	A	•
A	I	•	N	A	I	R	I
D	•	I	A	T	•	I	•
E	R	E	T	•			
K	O	R	E	G			
•	H	•	L	•			

Maiatzaren 9a: 042 zozketa

Harpidedunen
txokoa


Sariak astero!

Astlehenean, maiatzak 9, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Maiatzaren 9ko sariak



- Maiatzaren 13, 14 eta 15ean, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **MAGIA IKUSKIZUNERAKO BI SARRERA** (saridun bakoitzarendako bi).
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).



Euskal selekzioaren bideojokoa eta bufanda.

BALDINTZAK

- *Astleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astleheneetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

041
zozketa

saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

EIBAR - ALMERIA futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).


- Mila Ugarte Ugarte (Oñati)
- M. Karmen Lete Lazpiur (Bergara)
- J. Antonio Azpiazu (Oñati)
- J. Antonio Auzmendi (Arrasate)
- Emilio Lagunilla (Arrasate)
- Marivi Aginagalde (Arrasate)

LAUBURUA mahai jokoa Argia argitaletxearen eskutik.

- Gurea taberna (Aretxabaleta)

Bi sari Elgetako Espaloia antzokian maiatzak 6an, barikua, izango den bakarrizketarako, "QUIERO SER NORMAL" Joan Simonena.

- Alberto Elkoroiribe (Bergara)
- J. Antonio Elorriaga (Bergara)



'Ilunpean'

EGUBAKOITZA 6 / 21:00 eta 22:30

Oihana Elortzak galdetu eta Kike Amonarrizek erantzun

Elkarrizketa umoretsua oraingo *Ilunpean* saioan. Filologo eta soziolin-guista izateaz gain, Kike Amonarriz ezagunagoa baita txiste kontalari moduan. Txiste eta txiste artean, "Euskara onaren formula" izeneko lanaz hitz egingo digu.



'Bertsolaritza'

ASTELEHENA 9 / 22:30

Bertsolari gazteen Osinalde sariketa Gabiriatik

Bertsotxoak gustuko dituzuenok astelehenean izango duzue ondo gozatzeko aukera. Gabirian jokaturako gaztetxo bertsolaritza txapelketako finala eskainiko dizue GOITBk. Ez galdu irabazlearen, Aritz Aranbururen, bertsoak!



'Debarri'

MARTITZENA 10 / 21:00 eta 22:30

Aretxabaletako proiektuen berri 'Debarri' saioan

Aretxabaletako kontuak izango dituzte berba *Debarri*-n. Alberto Gorriti-bereak herriko alkate Arrixu Oliden elkarrizketatuko du. Beti bezala, ikusleek aukera izango dute Internet edo telefono bitarrez saioan parte hartu eta galderak egiteko.



'Baneki'

EGUENA 12 / 21:00

'Baneki' zaleok, adi ikusleendako galderari!

Badakizue *Baneki* saioan parte hartze-ko ez duzuela GOITBko platora etorri beharrik. Zuen etxetik honako galderari erantzun diezaiokizue egunean: Non dago Dorletako Santutegia? Idatzi GTB (erantzuna) eta bidali SMS bat 7744 zenbakira.

TELEBERRIAK

Giroa emango du zuzenean ETB1ek

ETB1ek zuzenean eskainiko du Italiako Giroa, biharko, zapatua, maiatzaren 20ra bitartean. TVEk ez ematea erabaki ondoren, ETBk eskainiko du egunero bazkalostean, Fermin Aramendi eta Xabier Usabiagaren eskutik. Zapatuko hasierakoa, kilometro bateko erlojupekoa, gaueko 9etan izango denez, hori ez du zuzenean emango, baina bai futbol partiduaren ostean.

'Vaya semanita'-k bere errekorra hautsi du

Apirilean izan ditu ikusentzule gehien ETB2ko *Vaya semanita* saioak. Telebista ikusten ziharduen %35,9k jarraitu du saioa eta autonomia erki-degoko saiorik ikusiena izan da egunetan.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Maiatzaren 6tik 12ra



EGUBAKOITZA 6	ZAPATUA 7	DOMEKA 8	ASTELEHENA 9	MARTITZENA 10	EGUAZTENA 11	EGUENA 12
13:20 Baneki 13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade 14:10 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Behazulo 15:00 Añamendietan Berriak Aurrerapena Klip@ 15:45 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Ilunpean 21:30 Eguzki lore 22:00 Berriak 22:30 Ilunpean 23:00 Eguzki lore 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	11:05 Behazulo 11:35 Baneki 12:00 Marrazki bizidunak: Sherezade 13:10 Baneki 13:40 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 14:00 Ilunpean 14:30 Añamendietan 15:00 Filma: Operako mamua 16:00 Eguzki Lore 16:30 Jaun ta jabe 17:00 Klip@ 17:15 Behazulo 17:45 Ganbara Abesbatza 18:30 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 19:15 Añakoko igoera: Lasterketaren laburpena 19:45 Emisio amaiera	11:05 Filma: Operako mamua 12:00 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 12:55 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 13:10 Ilunpean 13:45 Añakoko igoera 14:15 Eguzki lore 14:40 Filma 15:30 Añakoko igoera 16:00 Marrazki bizidunak: Sherezade 17:40 Klip@ 18:00 Baneki 18:30 Jaun ta jabe 19:00 Añamendietan 19:30 Marrazki bizidunak: Sherezade 20:45 Baneki 21:15 Ganbara Abesbatza 22:00 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade 14:10 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Ilunpean 15:00 Eguzki lore 15:30 Berriak Aurrerapena Klip@ 15:45 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Baneki 21:30 Harmailatik 22:00 Berriak 22:30 Bertsolaritza 23:00 Harmailatik 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:20 Baneki 13:50 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Harmailatik 15:00 Bertsolaritza 15:30 Berriak Aurrerapena Klip@ 15:45 Emisio hasiera 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Debarri Aretxabaleta 22:00 Berriak 22:30 Debarri Aretxabaleta 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade 14:10 Marrazki bizidunak: Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Debarri 15:30 Berriak Aurrerapena Klip@ 15:45 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak 21:00 Añamendietan 21:30 Jaun ta jabe: Piñu kajaren atarian 22:00 Berriak 22:30 Añamendietan 23:00 Jaun ta jabe 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 14:15 Berriak Aurrerapena 15:00 Añamendietan 15:30 Berriak Aurrerapena Klip@ 15:45 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: 03 Patrulla 21:00 Baneki 21:30 Behazulo 22:00 Berriak 22:30 Añamendietan 23:00 Behazulo 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera
21:30 Eguzki lore	15:00 Filma	21:15 Ganbara Abesbatza	22:30 Bertsolaritza	21:00 Debarri	21:30 Jaun ta jabe	21:30 Behazulo

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Bainu altzari eta osagaiak
Hidromasaje kabinak
Manparak
Eraikuntzako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK:

Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:

Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



MULTIOPTICAS

SEIHILEKO PACKA



...6 hilabete ERABILTZEN
OSO EROSO
KALITATEZKO IKUSMENAREKIN



95€

graduazio esferikoa -8 +6

**EGUNEAN ERABILI
ETA BOTATZEKO
LENTILLA KIT BAT**

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Aitor Ramirez/ Auto zalea

Noizkoa da autoenganako dagoen zaletasuna? Hemen, Euskal Herrian, zaletasun handia egon da beti. Edozein igoeratan bost milatik hamar mila pertsona bitartean egoten dira bost kilometrotan. Baina Espainian ikusten den zaletasuna berria da. **‘Alonsomania’ gatik izango da, akaso?**

Duda barik. Fernando Alonsoren fenomenoak jende asko erakarri du. Duela lau urte ez zegoen inongo problemarik Montmelora joateko. Azken bi urteetan, aldiz, bost hila-bete lehenago hartu behar dituzu sarrerak.

Bazoz Montmelora?
Ez ditut sarrerak lortu. Pilotuak egoten diren tokirako paseak, sarrerak, lortu behar zizkidan lagun batek, baina azkenean barik gelditu naiz.

Nolako zirkuitua da Bartzelonako Montmelo?
Carlos Sainz gidariarekin izan nintzen han duela bost urte eta asko gustatu zitzaidan, oso polita da.

Ze berezitasun ditu?
Bi zuzen luze ditu eta haietako luzeenean abiadura handia hartuko dute autoek, lasterketako abiadu-

rarik handiena uste dut; 310-315 kilometro orduko, gutxi gorabehera.

Ze usain egoten da horrelako lasterketetan?

Erregai bereziak erabiltzen dituzte auto horiek eta erregai usaina egoten da, baina ez da horrenbestekoa. Gurpilek, berriz, ez dute erre usainik ateratzen; orain lau gurpil bakarrik dituzte lasterketarako, lau *polerako* eta beste lau entrenamenduetarako. Motorra ere, bat dute bi lasterketetarako.

Eta zenbat lagun?
Gidari bakoitzak izango ditu 100 bat lagun ondoan. Mekanikoek aginduak bidaltzen dizkiete gidariei eta beraz, mekanikoek gidatzen dituzte autoak, ez pilotuek.

Rallyetan ere bai?
Oraintxe jarri duten arau batek dio rallyetan bost lagun izan ditzakeela gidari bakoitzak asistentziarako.

Zer moduz ibili zara Arrateko igoeran?

Zortzigarren egin nuen eta neuk irabazi nuen turismoen lehen saria. Datorren astean, berriz, maiatzaren 14an, Bergaran antolatu duten igoeran hartuko dut parte, Gorkako igoeran.

Eutsi beharko diozu Euskadiko txapelduna izateari, ezta?

Hiru urtez segidan izan naiz txapelduna Euskadiko igoeretan. Ahaleginduko naiz horrela jarraitzen.

Berdin gidatzen dute lehengo eta oraingo auto gidariak?

Formula 1eko pilotu guztiak gidatzen dute berdin, baina oraingoek, agian, finago. Prestakuntza eta abantaila hobeak dituzte.

Nor izango da azkarrena domekan Montmelon?
Michael Schumacher, ehuneko ehunean, gainera.

Futboleko kinielak asmatzea baino errazagoa da, edo?

Ez, baina ziur nago.



“Carlos Sainzekin izan nintzen duela bost urte Montmelon; asko gustatu zitzaidan”

“Bi zuzen luze ditu Montmelok eta hantxe hartuko dute autoek lasterketako abiadurarik handiena: 310-315 km/h”

“Gaur egun mekanikoek gidatzen dituzte Formula 1eko autoak, ez pilotuek”

► Oñati/ 33 urte / Lasterketetako auto gidaria

PIPERRAUTSA

Plangintza

Jaurlearitzak onartu berri du Debagoienerako lurralde plana. Ez dut ezagutzen behin betiko testua, eta agerkariak arin ibili dira, EAEko laugarren hiria edo Gipuzkoako bigarren hiria moduko izenburu deigarrietan. Guztiak azpimarratu dute, hori bai, Urkuluko asmoa bertan behera gelditu dela, “jaso zuen oposizio handiagatik”.

Beno, Urkulukoaz eman nuen iritzia bere garaian, eta ez dut uste konpondu nahi zena konpontzen denik asmoa bertan behera utzita. Baina ez daukat amorrurik edo komisiorik hura defendatzeko, dagoela bakean egitasmo hila.

Hura galduta ere, eskualdeko lurralde plana (ELP) oso tresna inportantea da. Lehen aldiz hartzen duelako ibar osoa antolaketa esparru moduan, unitate funtzional gisa. Eta detektatzen dituelako ibarrak dituen arriskuak eta aukerak hurrengo urteetan. Hau, noski, askoz gehiago da herrien batuketa simplea baino.

Orain arazoa da nor arduratu behar den ibarrean ELP gauzatzeaz. Nik uste, Mankomunitateak behar duela lan honetan gidari, bera baita ibarreko administrazio gunea. Aldaketa asko beharko lituzke horretarako, besteak beste, jasotzea udalen eta Aldundiaren partetik aginte eta baliabide gehiago.

Baina hori egiten ez bada, arriskua da Jaurlearitzak goitik ezartzea plangintza, eta udal bakoitza berekoikerian ibiltzea. Denon kalterako.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



RKUZ
ELETRAGAILUAK
Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA
expert

RKUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

RKUZ
SUAHILDE INTEGRALA
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA
FAGOR

ETXE MOBEL
MUEBLAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

